

BETERRIKO ALDIZKARIA

AI RRI

1995ko otsaila. 10. zenbakia. Doan banatzen da


HAUTERRIAK

neguko jai koloretsuak

SAGARDO TEGIAK



PAGAMUÑO




Pagamuño auzoa ☎ 69 18 19 - 69 15 83
ZIZURKIL

150 pertsonentzako lekua
(aparkamendua).

Orain dela 52 urte ireki zen.
Sagardo garaian irekitzen dute.
Sagardoa beraiek egiten dute

Berezitasuna: Makailua
pil-pilean

ZABALA



sagardotegia

ADUNA ☎ 69 07 74

200 urte izango dira ZABALATARRAK
sagardotegiarekin hasi zirela, lehenengoz,
Andoaingo kalean zuten baina, gero ganaduarekin
eraman ezin zuten itxi eta Adunan beraien
baserrian jarraitu zuten.

Sagardo garaian irekitzen dute.

Bertan egiten dute sagardoa.

150 pertsonentzako lekua badute (berritua)
(aparkalekua)

Berezitasunak: Makailoa eta Txuleta ederrak.

sagardotegia




ELBARRENA auzoa (Marie Brizard parean)
ZIZURKIL ☎ 69 02 64

150 pertsonentzako lekua (aparkalekua)
86.urtean ireki zuten

Sagardoa beraiek egiten dute.
Sagardo garai amaitzen denean Erretegi
gisa erabiltzen dute (TOKI EDER
erretegia).

Berezitasunak:

- Makailau frijitua
- Txuletak
- Antxumea burduntzian



2. **INKESTA:** Eta zuk, zer diozu San Balentin egunari buruz?

4. **BERRIAK LABUR**

7. **ZIKULU SALTSA:** Irurtzun-Andoain autobidea bukatzeaz.

10. **HERRIZ HERRI**

19. **ERREPORTAIA:** Txantxoz jantzita.

22. **ELKARRIZKETA:** Billabona.Zubiberri: ahateen zaindari.

24. **BASERRIAN:** Nekazaritza biologikoa.

26. **KULTURA:** Zizurkil.Hernandorenaren liburu fondoa jaioterrira.

28. **KIROLA:** Andoain. Squash talde berria.

30. **ZAHARRAK BERRI:** Billabona.Jota-Kia Jota-Utzaren aurka.

31. **ENPRESA:** Asteasu. Garmendi tailerra burdina eraldatzen.

32. **BEGI ARGIA:** Fatima Aparicio. "Andoaindarrak gutxi kexatzen gara oraindik".

33. **HEMEROTEKA**

34. **HOTS, HOTS!! SUKALDE TXOKOAN**

35. **MERKATU TXIKIA**

36. **ZURE HIZPIDEA**

37. **AIURRITARRAK:** Andoain. Eva Peláez, hezitzailea.

39. **AGENDA**

40. **PASADIZUAK**



© KARNIELO MARZON



1



M.LARRAVENDI



Aldizkari honek Eusko Jaurdantzako Kultura sailaren laguntza jasotzen du.



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren laguntza jasotzen du.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen al-dizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia. **Erredakzio Batzordea:** Eloi Egibar, Jone Larrañaga, Mikel Maiz, Jon Unanue. **Erredakzioa:** Mainer Barandiaran, Txomin Etxeberria, Agosti Garmendia, Ainhoa Oiartzabal. **Laguntzaileak:** Joxe Eizmendi. **Argazkiak:** Manu Mujika. **Komikia:** Iñaki G. Erro. **Publizitate arduraduna:** Mailu Ibarbia. **Banaketa arduraduna:** Iñosen Mujika. **Administratzaile-eragilea:** Kepa Sarasola. **Inprimategia:** SORTU s. coop. **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 **ISSN:** 1134-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

Eta zuk, zer diozu


Hilaren 14ean irten ginen argazki makina hartuta kalera hileroko erantzun eta iritziak jasotzera. San Balentin eguna aukeratzeak bazuen bere arrazoa, alegia, egun seinalatu norbaitek gogoan ote zuen jakin nahi genuen. Hasteko esan, inkesta egitea inoiz baino eginkizun zailagoa izan zela, inork gutxik nahi baitzuen maitasun eta maitemin kontuetaz grabadoraren aurrean hitz egin (ulertzekoa era bada). Lehenengo une larriak gainditu ondo-

ren, hala ere, lortu genuen oinezko batzuk ezustean hartu eta erantzun batzuk jasotzea. Gehientsuenak gogoratzen ziren santuaz edota maiteminduen zorioneko egunaz. Eta gainera, gehientsuenek ere nor maitatu bazeukatela entzutea berri pozgarria izan zen. Jakin ez genuena -eta, jakina, galdetzea atrebentzia handiegia iruditu zitzaigun- maitemin horiek ordainik ba ote zuten ala ez.



Monika, Karolina eta Ainhoa. Andoain. Ikasleak.

(Barre txiki maliziatsuak, eta azkenean...), bai, bai, badakigu gaur ze egun den: San Balentin eguna da, maiteminduen eguna. Ospatu ere ospatu dugu. (Eguerdia baino ez zen kalean ikusi genituenean eta ordurako opariak eman eta ja-soak zituzten hiru neskatila hauek).



Juan Luis Astiasaran. Billabona. Langilea.

Gaur San Balentin eguna da. Egun normala niretzat. Nik ez dut oparirik erosi. Berak egiten badit, konforme... Gauean ospatuko dugu, beharbada. Dena den, egunerokoa da inportanteena eta ez egun batean egiten den ospakizuna.



Maria Elena Cruz. Zizurki. Ikaslea.

Bai, badakit ze egun den gaur; San Balentin eguna. Egun ederra da... Nik asko maite dut... Ospatzeko denborarik ez dut izan; oso lanpetuta nago, baina oparia egin diot, eta nik ere jaso dut neurea.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:


En la edición de esta publicación colabora:



•
•
•
•
kutxa fundazioa
fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

San Balentin egunari buruz?



Alejandro Legarra. Asteasu. Baserritarra.

Enamoratuen eguna da gaur. Ospatu? Goizean andrea, semea eta hirurok mezetara joan gara, semearen urtebetetzeak dira eta. Ez dut oparirik egin, akaso, berak...



Joxepa Iñaxi Eizmendi. Aduna. Baserritarra.

Gaur ze egun den...? (Ezta akordatu ere). San Balentin? San Inazio dela, San Pedro dela, Santa Ageda dela...., ez naiz gogoratu ere egiten. Maiteminduen eguna? (Horren arrastorik ere ez zeukan). Maiteminduta? Lehen astirik ez, eta orain berriz...



Fernanda Márquez. Andoain. Etxekoadrea.

(Kostatu zaio, baina azkenean konturatu da zeri buruz ari ginen galdezka). Oso egun ederra da, baina gazteentzat batez ere. Senarra eta biok gazteak ginenean ospatzen genuen baina orain... Nik ez dut oparirik egin, eta ez dut espero. Nire seme-alabak jaso ditzatela...



TXERRIKIEN
BANATZAILE
ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA
Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923
ANDOAIN



LANBIDE EZBERDINEN
ARTEKO KOORDINAKETAK

GASA ETA BEROGINTZA

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGETLSARITZA



**Dietetika
eta Belardenda**

ZAINBERRI

Naturopataren kontsulta
Iridologia
Masajea
Estetika

Akupuntura
Ile tratamenduak
Pisu terapiak

Pablo Gorosabel, 6 - ☎ 65 21 86
Kale Nagusia, 7 - ☎ 59 13 99

**TOLOSA
ANDOAIN**



MAPFRE

ASEGURUAK

ERANTZUN ORAIN
ZURE ETORKIZUNARI

Xabin Mujika Tolaretxipi

Kale Berria, 11 - ☎ 30 06 99
Dr. Huizi kalea, 4 - ☎ 59 23 07
Faxa 30-00-85
ANDOAIN

Ernio-Behea

Taxi bonoen erabilera

Joan den urteko urrian eman zioten Asteasu eta Zizurkilgo Udalek taxi bonoaren egitasmoari hasiera. Taxi bonoak elbarri fisikoek beraien egoerara egokitutako taxiak erabiltzeko baliabidea dira. Elbarritasun motaren arabera taxian ibiltzeko diru kopuru jakin bat ematen zaio elbarriari, 12.000 pezeta gehienez. Era horretako bi taxi daude inguruan: Elegin bata, eta Tolosan bestea. Taxi hauek aulki elektriko bat eta eskuz mugitzen den horietako bat sar daitezke batera, beraz, bi lagun ere joan daitezke ibilaldia egitera. Bestalde, aulkian ez egon arren, garraio publikoetan ibiltzeko zailtasunak eduki eta taxian mugitu behar dutenei, makuludunei esate baterako, taxi bonoak ere eskaintzen zaizkie. Erabiltzaileak taxistari deitu besterik ez dio egin behar, eta ordaintzeko orduan bono bete eta eman. Bestalde, elbarrituarekin laguntzailearen batek joan nahi badu ere, bono taxia erabiltzeko aukera dauka.


Esperientzia egiteko Asteasuko lau lagunei eta Zizurkilgo bie eskaini zitzaizkien bonoak, eta emaitzak ezin hobekak izan omen dira. Zizurkilgo Inaxitok berak adierazi digu hori: taxi bonoari esker Larraitzera, Zumarragako Santa Lutzi feriara eta beste hainbat tokitara joan ahal izan da. Eguraldiak onera egingo duenerako ere, lagun bategin ibilaldiren batean ari da pentsatzen.

Ekimen hau Asteasu eta Zizurkilgo Udalek ordaindu dute orain arte, Ernio-Beheko Zerbitzu Sozialak ezin izan baitzuen Diputazioko dirulaguntzarik jaso. Hala ere, 1995 urtean ekimen bera bultzatu nahi dute, eta Diputazioko laguntza jasotzea espero dute.

Hilaren 17an bukatu zen taxi bonoen eskaria egiteko epea, hala ere Ongizate Zerbitzuko bulegoetan adierazi digutenez, oraindik ere besteren bat interesatuta egonez gero, eskaria

egin dezan ohartarazi dute.

Taxi bonoaren helburua gaur egun garraio publikoetan ibiltzeko elbarriek dauzkaten zailtasunak gaintuz, euren kasa mugitzeko aukera ematea da: erosketak egiteko, lagunak bisitatzeko, bazkaltzera joateko edota aisialdia betetzeko beste edozer gauzetarako. Taxi bonoa 14-60 urte bitarteko elbarriek erabil dezakete. Aulki elektriko abantaila handia izan zen bere garaian, izan ere autonomia osoz 40 kilometro egiteko aukera ematen du, taxi bonoak muga gehiago apurtuko dituelakoan daude.



Garbiketa lanak Oria ibaian

Andoaingo ingurugiro teknikariak adierazi digunez, ziur aski, azken hilabeteetan egin diren garbiketa lanen antzekorik ez da inoiz Oria ibaian egin. Ura- ren kalitatea hobetu nahian, ur gaineko eta ibai ertzeetako zaborra, alegia, begi bistan dagoena, kendu dute batez ere. Eusko Jaurlaritzaren ekimenez EULEN enpresa izan da lan horretaz arduratu dena.

Andoainen 5.372 zabor bortsia bildu dituzte ibaitik, hau da 64.000 kilo zabor, su emandako 1.756 m³ sasi eta bestelako erreskin, 2.667 egur eta 24 animalia. Billabonan 15.000 kilo zabor jaso dute, 16.000 kilo Adunan eta 5.000 Zizurkilan. Leitzararen errekan kopuruak askoz ere txikiagoak izan dira, hala ere guztira 384 kilo zabor jaso dituzte.

Tolosatik hasi ziren garbiketa lanak egiten eta ibiaren bukararaino iristeko asmoa zeukaten, baina uste baino zabor gehiago aurkitu dute bidean eta lanak luzatu egin dira.

Datu horiek direla eta, Andoaingo Udalak bando bat atera du herritar guztiei dei berezia eginez, ibai zaindu eta garbi mantentzeko, zikinkeriarik bota gabe.

Andoain

Santa Ageda bezpera



Larramendi Bazkuneko andoaindarrek beste behin ospatu zuten Santa Ageda bezpera. Koplak kantatuz, soinua alaituta eta makil hotsa ateraz zeharkatu zituzten herriko kaleak eta girotu zituzten herriko txokoak. 33.000 pezeta bildu zituzten

Billabona Ongizate zerbitzuaren egitasmoak

Billabonako Udalak ezagutzera eman ditu aurrerantzean Ongizate eta Osasun batzordea osatuko duten kideak eta aurrera eramango dituzten proiektuak. Alderdi politiko guztiak egongo dira aurrerantzean batzordean ordezkatura. Hauek gain herriko beste erakunde eta talde hauek hartuko dute parte:




“Alcohólicos Anónimos”, Apurka taldea, Osasun Zentrua, Flemming eskola publikoa, Gurutze Gorria, Jesusen Bihotza Ikastola, haur eskolako guraso elkarte, Malkar taldea, parrokia, Zaharren Egoitza, Kultur Etxea, Euskara batzordea, farmazia, gizarte laguntzaileak eta Ongizate batzordeburua.

Diputazioak nahiz Eusko Jaurlaritzak Ongizate sailaren bitartez bideratzen dituzten proiektuetaz baliatu nahi du batzordeak. Lau dira bereziki aurrera eramanez nahi dituzten

egitasmoak: lehenengoaren bitartez herrian arlo horretan dauden eskari guztiak bildu nahi dituzte. Familiaren esparrua landu nahi du bigarrenak, adingabekoei arreta berezia eskainiz. Hirugarren, prebentzio eta bergizarteratze egitasmoei eutsi nahi zaie. Azkenik, herriko talde eta kultur taldeen arteko koordinazioan eta euren eskaintzetan jarriko dira indarrak egitasmo hauen guztien lagungarri. Emakumeari zuzendutako arlo bereziari ekin nahi zaiola ere aurreratu zuten prentsaurrean.


Zizurkil

Ipuinen magian murgilduta



Halaxe egon ziren Zizurkilgo Jesusen Bihotza ikastolako eta Adunako eskolako haurrak Kultur Etxean Virginia Imazek monstro, animalia, neska-mutil bihurri, printsesa eta beste hamaika pertsonaien istorioen hariari jarraituz. Urez gain, denboraz eginiko itsaso zoragarri bat zeharkatuz eraman zituen guztiak ametsezko bidaia bat egitera. Ametsak errealitate bilakatzen diren lekua zen helmuga, ipuinen mundua alegia.

Juan Bautista
ORMAZABAL




**PINTURA LANAK
ORO HAR**

Profesionalak gara

ALUSTIZA baserria

☎ 943 - 69031 20150 AMASA



**NEKAZALTURISMOA
J A T E T X E A**

Ogi Zuri

Okindegia

ZURI ZURIA...

Lizarra kalea, 32
☎ 69 18 96 ASTEASU

Ogi-GOXO


Okindegi eta Gozotegia

**EDO BELZTUXEAGOA,
BAINO GOXO
GOXUA!!**

Kale Nagusia, 26
☎ 69 32 94 BILLABONA



1995eko martxoaren 17tik 26ra
GARAZI-GASTEIZ



Jalgi Hadi euskaraz!



MARTXOAK 19

- (3,47) -**ANDOAIN** (Harrobia)
- (3,55) -**ANDOAIN** (Goikoplaza)
- (4,00) -**ANDOAIN** (Bekoplaza)
- (4,08) -**ANDOAIN** (Sorabilako kruzea Eskola)
- (4,24) -**ADUNA**ko zubia
- (4,30) -**ZIZURKIL** (Marie Brizard lantegia)
- (4,35) -**BILLABONA** (Hirualdeta taberna)
- (4,45) -**BILLABONA** (Gasolindegia)
- (4,56) -**IRURA** (Aizpurua jatetxea)
- (5,00) -**ANOETA** (Kruzea)
- (5,30) -**TOLOSA** (Miserikordia)
- (5,55) -**ALTZO**ko kruzea
- (6,25) -**LIZARTZA** (Udaletxea)
- (7,00) -**MUGA**

San Jose egunean iritsiko da Korrika Beterrira

Bederatzigarren Korrikak Garazin izango du abiapuntua martxoaren 17an eta Gasteizen amaituko da martxoaren 26ean Euskal Herria osoa zeharkatu ondoren. Beterrira martxoaren 19an iritsiko da Lasarte-Oriatik Andoain, Zizurkil eta Billabona zeharkatuz. Hainbat kultur ekintza eta ekitaldi prestatu dituzte antolatzaileek egun horietan: besteak beste, **Andoain eta Billabonan Korrika Txikiak** izango dira, ikastetxe guztietako ikasleen partehartzeaz **martxoaren 17an. Biharamunean afaria izango da Arrate frontoian.**

Korrikak 9k, orain arteko Korrika guztiek bezala, mezu bat zabaldu nahi du Euskal Herrian barrena: "Euskara betidanik egon da lur honetan. Gure arbasoek eza-

gutu zuten eta geuk ere ezagutu dugu. Herri honek egin du euskara eta euskarak aberastu egin du herri hau, munduaren aniztasun unibertsalari bere ekarpena euskaraz eginez. Hizkuntzari duen garrantzia eman behar zaio, herria, hizkuntza eta lurra erabat loturik baitaude".

Orain 450 urte Beñat Etxeparek idatzirikoa mezua plazaratu nahi du beste behin AEK-k: "Erdaldunei, Euskal Herria euskararen bidez eriden dezatela, honetarako ahaleginak jorratuz, euskaraz egin hal izateko, ezagupena behar beharrezkoa delarik. Euskaldunei, berriz, batasunez jokatzeko, euskara harrotasunez erabiltzea, euskaraz orain bizitzea".

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

KIROLAK EDURNE

KALETXIKI, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN

Zabala
Ordukari Bitxitegia

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI

Irurtzun-Andoain autobidea bukatzeaz

- Akordioaren ondoren, Leizaran zertxobait saihestu eta Berastegi aldera sartu.
- Lurraldeak jarraipen batzordearen bitartez arazo berriei alternatibak proposatzen jarraitu du
- “Azken hogeitatan egin den autobiderik txukunena”



Hilabete batzuk baino ez dira geratzen Irurtzun-Andoain autobidea inaguratzeko, Gipuzkoako Diputazioaren nahia behintzat, maiatza aldean inaguraztea da, egun horietan beteko baitira hain zuzen ere, lanak hasi zirenetik lau urte. Orain bi hilabete jarri zuten Andoainen bertan azkenengo habea. Hala ere, Nafarroa eta Gipuzkoa lotuko dituen autobidearen historia ez da horren berria, orain dela berrogei urte gutxienez, helburu bera zuten zenbait ekimen izan ziren. Autobidearen “historia modernoa” ordea, 1986ean hasi zen Nafarroako eta Gipuzkoako Diputazioek Leizarango arroan zehar igaroko zen mendiko autobide bat egitea hitzartu zutenean. Geroztik makina bat gorabehera, istilu eta une larri bizi izan ditu proiektuak, horren lekuko Autobidearen Aurkako Koordinadoraren sorrera, borroka armatuaren partehartzea, Lurraldearen alternatiba, manifestazioak eta azkenean akordioa, Gipuzkoako Diputazioaren

eta Lurraldearen arteko akordioa Leizaran bailara zen gatazka motiburik garrantzitsuen konpontzeko. Nafarroan ordurako lanak oso aurreratuta zuden, eta agintari nafarrekin ez zen akordio publikorik lortu, bai ordea, hobekuntza zehatz batzuk. Akordioa 1991ko udan hitzartu eta nork bere balorazioak egin ondoren lanak hasi ziren. Geroztik autobideak bere martxari jarraitu dio, “normalizazio bidean” Diputazioko Errepide saileko aholkularia den Juan Mari Artolaren esanetan. Lurraldeko kideek beren jarraipen batzordearen bitartez lanean jarraitu dute, lanak aurreratu ahala hitzarmenean aurrikusi gabeko arazoei elkarlanean konponbidea eman nahian alternatibak proposatuz. Bere garaian Lurraldeak hitzarmena lorpen handizat jo bazuen ere, geroztik “hitz polit ugari baina kasu gutxi” egin zaiela adierazi du Lurraldeko kidea den Juan Antonio Amilibiak.

Lurraldea jarraipen batzordearen bidez teknikari talde batez baliatu da lanen gorabeheren jarraipena egiteko. Gaur egun bere lanik garrantzitsuena egin diren kalte ekologikoak berreskuratzeko hitzartu ziren egitasmoen jarraipena egitea da, berroihaneztapenak eta birlandaketak batez ere. Dena den, aurrera begira diru arazoak direla eta, etengo ote diren beldur dira. Horregatik hitzartu nahi dute Diputazioarekin orain ez bada, epe jakin batean lan horiek burutuko diren konpromezua.

“Akordioaren ondoren hitz politikak baino ez”


Akordia sinatu eta gero ere arazoak izan omen dira Amilibiaren esanetan, Elduaiezen esaterako, aldame-neko mendian egiten ari diren luebaki batzuk direla eta, “hala ere, jaramon gutxi egin zaie gure proposamenei” esan digu. Artolak bestalde, azkenengo hoge urteetan egin den autobiderik txukunena dela gogoratu du. Eta autobide hau egiten hasi zirenean ekin omen zioten Europa mailan ere halako lanetan eragin ekologikoa zaintzen duten ikerketak egiten.

Autobidearen historia

Nafarroako agintariak -ez guztiek-beti izan dute gogoko Gipuzkoarekin lotura gune bat itsasoko bidea hartu asmoz. Gipuzkoarrek berriz, Iruñeako bideak Mediterraneo aldeko zeharbidetako erretuko zela ikusi izan dute beti. Lehenengo egitasmoa Estatuko MOPU erakundearen eskutik etorri zen, 1977. urtean. Ibilbide horrek aldenik alde zeharkatzen zuen Leitzarain bailara. Ondoren Diputazioak Belabieta ingurura egiten zuen beste bat aurkeztu zuen. 1985ean aukera ezberdinak izan zituzten bi Diputazioek esku artean eta batzuk baztertu ondoren Leitzarango arroa igarotzen zuena aukeratu zuten. 1986ean hitzartu zuten bi Diputazioak autobideak Irurtzun eta Andoain lotuko zituela, Leitzarain zehar zortzi kilometro ginez.

Autobidearen aurka

Autobidearen aurkako lehenengo ekimenak 1977koak dira, MOPUK aurkeztu zuen ibilbidearen aurka hain zuzen ere. 1986ko bi Diputazioen eraba-



Irurtzun-Andoain autobideak 45 kilometro dauzka guztira: 28'5 Nafarroan eta 16'5 Gipuzkoan. Hiru tunel izango ditu Nafarroan eta lau Gipuzkoan: Belabietakoa, Euskal Herriko handiena, 1.800 metrokoa da.

kiaren ondoren sortu zen Autobidearen Aurkako Koordinadora. Bere lanik garrantzitsuena autobidearen aurka egoteko zeuden arrazoiak ezagutzera ematea izan zen hitzaldi eta bileren bitartez. Eta azkenean, bide honen azken fasean sortu zen Lurraldea. Lurraldearen baitan alternatiba ezberdinak ere bazeuden: batzuek egungo errepidea konponduz auzia konpondu eta dirua aurrezki zitekeela esaten zuten, beste batzuek errepide berean norabide bakoitzeko bi karril jartzea nahikoa izango zela pentsatzen zuten. Alegia, oinarrian, ordura arte Nafarroa eta Gipuzkoa artean zegoen errepide sarea, Belate, Etsegarate, Altsasu, Azpiroz hobetu behar zirela pentsatzen zuten, eta tren bezalako beste garraibide batzuk bultzatu. Dena den azkenean, Lurraldeak alternatiba bat aurkeztu zuen, alegia Leitzarain bailara ahalik eta gutxien ikutzen zuen ibilbidea seinalatzen zuen alternatiba.

Gatazka uneak

1990ean adjudikatu zitzaizkion autobideko lanak sei enpresez osatutako elkargoari. ETAK auzian parte hartu zuen, hildakoak eta mehatxatuak egon ziren. Sei enpresek atzera egin zuten eta Diputazioari proiektutik kanpo uzteko eskatu zioten. Bien bitartean Gi-


puzkoako Diputazioa EAren eskuetatik PNV-EAJren eskuetara igaro zen. Diputazioak eta Lurraldeak 1991ko udan lortu zuten akordioa. Hauxe da hitzartu zutena: Leitzarain zehar lehen zortzi kilometro egiten bazituen autobideak, aurrera lau egingo zituen bi muturrak ikutuz, eta horren ordez Berastegi aldera egingo zuen bideak. Horrez gain, ingurunean ahalik eta gehien berreskuratzeko birlandatze planak onartu zituzten. Bestalde, aurrerantzean prozesuan Lurraldeak parte hartzeko aukera izatea. Eta azkenik, Leitzarain parke naturala bihurtzeko egitasmoa ontzat jotzea.

“Birlandaketak ibilbidea egin ahala egiten ari dira”

Akordio publikoa Gipuzkoako Diputazioarekin baino ez zen lortu. Nafarroan puntu zehatz batzuen inguruan onartu ziren aldaketak, lanak oso aurreratuta baitzeuden. Dena den, akordioa ez zen berehalakoa izan: iritzia bi muturrekoak ziren eta Administrazioak alde batetik, Lurraldeak bestetik, zein baino zein manifestazio

handiagoa egin nahian herriari deitu zioten. Indarrak neurtu zituzten. Komunikabideek egun haietan ezagutzera eman zituzten datuen arabera, Lurraldean irten zen garaile neurketan.

Bukatzeko, aipatzekoa da iazko apirilean Andoaingo zubibideko lanetan langile bat hil egin zela eta beste hiru zauritu izan zirela. Istripua 135 tonako habe baten gainean, 25 metroko altueran zegoen hormigoizko zubi zati bat erori zenean gertatu zen. Oraindik ikerketa lanetan ari baldin badira ere, Diputazioko errepide saileko aholkulari den Juan Mari Artola andoaindarrak adierazi digunez istripua ez zen arazo tekniko baten ondorioa izan, laneko hutsegite baten ondorioa baizik, "zoritxarreko istripu bat". ALVISA enpresa ari da zubibidea egiten, lan horretan enpresa aditua.



Bidea asfaltatzen

“SALBA ZITEKEENA SALBATU ZEN”

“LEHENENGO JENDEARI EGIN NAHI DENA ONA DELA SINESTARAZI BEHAR ZAIO, EZ DUGULA ASTAKERIARIK EGIN NAHI”



JUAN MARI ARTOLA

Andoaingo Udaleko PNV-EAJko zinegotzia eta Diputazioko Errepide saileko aholkularia

Prozesua luzea eta gatazkatsua izan da, baina positiboa. Horren lekuko da adibidez, gaur egun Maltzaga-Urbina bidea dela eta, lanean ari den herritarren batzordea. Ez da erabakiorra, baina euren iritzia eman dezake. Aurka daudenei ere entzun egin behar zaie, baina gehiengoaren iritzia errespetatu behar da. Hala ere, lehenengo eta behin, jendea senestara zi egiten nahi dena ona dela, eta ez dela inongo astakeriarik egin nahi.

“Lotan egon gara”

Autobideak Andoainen izango duen eraginari buruz, kalterik ez dut uste egingo dionik, baina onurak ere ez dira izugarriak izango. Batzuek horrelako komunikabideek herrira zuzpertzeko ekonomiko handia ekartzen dutela diote. Zerbitzuei dagokienez ez dut uste. Egia da, aurrerantzean errezagoa izango dela, beste inon kokatu aurretik, enpresek hemen kokatzea. Dena den, Andoaingo Udala Arau Subsidiarioak egitean lotan egon da. Gaur egun ez daukagu zoru industrial egokirik eskaintzeko.

Abiadura Handiko Trenea

Ni trenaren alde nago. Kasu honetan ere guztiekin hitz egin behar dela uste dut, eta proiektua ona dela ikustarazi. Autobidean 30en bat alternatiba egon baziren, ziur nago trenaren ibilbidearekin 100en bat egongo direla.



JUAN ANTONIO AMILIBIA

Lurraldeako kidea andoaindarra

Akordioa lorpen handia izan zen. Mugimendu sozialak garrantzi handia izan du, eta ekologiarik dagokionez. Lemoiz ondoren mugimendurik sendoena izan da. Dena den, nik neuk neure zalantzak dauzkat azkenengo uneko akordioa ez ote zen alderdi politiko batzuen irtenbide taktikoa, eta ez etorkizunean egon daitezkeen antzeko arazoaren aurrean jarrera aldaketa, horregatik esaten dut salba zitekeena bakarrik salbatu zela. Borroka oso gogorra izan zen. Politikoen jarrera oso itxia izan zen, eta egoera zeharo larritu, eta Euskal Herrian dauden indar guztiek parte hartu zuten arte ez zuten amore eman. Akordioaren ondoren, hitz politikak ugari izan dira, baina gure proposamenei arreta eskasa egin zaie. Maltzaga-Urbina kasuan proiektuan parte hartzen ari den batzorde herritarri buruz asko hitz egiten ari da, baina nire ustez, egin dutena fraude hutsa da: herritarrek euren iritzia ematen dute, baina gero ez zaie jaramonik egiten.

Karrikan arazoak aurrikusten dira

Autobidea bukatuta, Tolosako lotunea egingo duen errepidea eraiki behar da, eta ez omen dago dirurik. Trafikoa Karrikatik desbideratu behar dute. Auzoa zeharo itoko du horrek, baina inor ez da gai arduratzen.

“Eta gutxi izango balitz... AHT”

Autobidea AHTrekin alderatuz huskeria izango da. Tamalez, autobidean hartu zuten bide beretsua hartu dute: alegia, ez dago batere informaziorik eta gauzak ezkurtuan ari dira egiten. Horrela jarraituz gero, gatazka ziurtatuta dago.



Herriz herri

Aduna

Adunako mendiak

Lur sail handiak dauzka Udalak

Azkenengo neurketen arabera 245 hektarea mendi dauzka Adunako Udalak, hau da Udalerri osoak dauzkan hektareen %35a Udalaren mendiak dira. Billabonak ezezik, inguruko gainerako herriekin alderatuz, ziur aski, lur sail handienak dauzkan Udala da.

Adunarrak historian zehar beti izan dute oso lotura estua mendia eta basoarekin. Jesus Amondarainek Adunari buruz egindako historia liburuan orain dela 300 urte Udalaren diru sarrera garrantzitsuenak basoaren bidez lortzen zituela kontatzen du, hau da gaitaina eta su egurra salduz. Garai hartan mendiak herriko lur sailak ziren.

XIX. mendearen lehen erdialdean ordea, mendiaren zati handi bat saldu zuen Udalak. Urte horietako agiriek dioenez, Udalak dirua behar zuen egun haietan ugariak ziren gerren kostuak ordaintzeko eta, Adunak ezezik, Euskal Herriko Udal gehienek ere saldu behar izan zituzten lur sail handiak. Dena den, Adunak oraindik ere eutsi zien sail askori, eta horregatik dauzka gaur egun oraindik horren sail handiak.

Salmenten ondoren Udalak lotetan banatu zituen mendi sailak eta baserritarrei utzi edota alokatu egin zizkien, nahiz eta jabetza Udalarena izaten jarraitu. Dena den, bertako ustiapena oso ongi araututa zegoen: hau da, baserrita-



Atsedenekua basoan

rrek belarra, egurra eta garoa ateratzeko eskubidea zeukaten baina horren truke landareak aldatu behar zituzten eta debekatuta zeukaten zuhaitzak botatzea.

Aipatu bezala, mendia oso garrantzitsua izan da beti lehen orain baino gehiago-, horren adierazle da 1.856ko ordenantza batean jasotzen diren hainbat agindu: garai hartan otea saltzea galerazita zegoen, adibidez, karea egiteko erregai bezala erabiltzen baitzuten ikazkinak.

Lantze aldaketak

Gaur egun ez dago esan beharrik mendiak ez duela baserritarraren bizitzan eta ekonomian horrenbesteko garrantzirik, eta lur sail batzuk utzi egin dituzte. Hala ere, Udalak bere jabetza zaintzen jarraitzen du eta bertatik ateratzen duen aprobetxamenduaren %15a legez inbertitu behar du mendiaren hobekuntzan. Azkenengo urteetan hobekuntzak eta landaketa berriak egin direla esan behar da, batez ere, 1.989an izan zen sute izugarriaren ondoren -Adunan bakarrik 110 hektarea erre ziren. Gaur egun pinuaren ordez, hosto zabaleko zuhaitzak ari dira sartzen: haritzak, urkiak, pagoak eta abar.

IKUSENTZUNEZKOAK:

Martxoak 7: "Gipuzkoako herriko ihauteria: Abaltzisketa".

Martxoak 14: "Euskal Herria: Lanetik festara".

Martxoak 21: "Ekialdetik Euskal Herrira".

Saioak **eskolan** izango dira **arratsaldeko 7.30etan**. Javier Juanes da ikusentzunezkoen egilea.

Joxe Mari ITURRALDE
ZURGINDEGIA
Formika lanak, sarrerako eta barruko ate mota guztiak eta edozein zurgintza lan.
ADUNA - ☎ 69 20 81

ALFARO
J A T E T X E A
Larramendi kalea z/g
☎ 59 40 27 ANDOAIN


TINTATEGIA GARBITOKIA
IZAR
Garbiketak lehorrean eta bustlan era guztietako arropak, mantelak, gortinak, alfonbrak...
Arrate kalea 3 ☎ 59 39 79 ANDOAIN



Kaleratutako langileak hasi dira berriro lanean

1995erako erregulazio sistema gogorra izango dela aurrakusten dute Fierroko langileek

Negoziaketa, mobilizazio eta lanuzte ugariren ondoren abenduan kaleratu zituzten Fierroko zazpi langileetako sei onartu dituzte berriro lantegian eta besteak jubilazio aurreratua lortu du. Lan delegazioan enpresa komiteak egindako azken proposamena zuzendaritzak onartu egin du. Proposamenak lan erregulazio eta lan boltsak aurrakusi ditu plantila osoarentzat. Langileek ordea, hitzarmen honek beste urte batzuetako lan hitzarmena baldintzatzerik ez dute nahi. Une honetan berriro ari dira negoziaketak egiten erregulazio baldintzak enpresarako nahiz langileentzat ahalik eta egokienak izan daitezen.



Aste t'erdiz lanuzteak egin dituzte

Abenduaren 27an kaleratu zituen zuzendaritzak zazpi langileak. Zuzendaritzak honako arrazoi hau eman zuen ezagutzera: ordura arte hiru urtez Iberduerok emandako 16.000 orduko lan bat izan zuten urtero. Enpresako zuzendari berriak 1995rako halako lanik ez zela izango ikusi zuen eta langileak kaleratzea erabaki zuen. Lantegian betetzen zuten funtzioagatik lanik egin gabe ordu kopuru gehien zeuzkatenak, alegia. Dena den, kontuan hartzekoa da uztaila geroztik enpresa komitea eta zuzendaritza 1994ko lan hitzarmena gauzatu nahian zebiltzala, arrakasta handirik gabe. Langileei onartezinak iruditzen zitzaizkien zuzendaritzak ezarritako baldintzak, hartueman ugari eta gatazkatsuen ondoren, bertan behera utzi zituzten negoziaketak, eta zazpi langile kaleratu zituztela jakin zuten.

Enpresak hasiera batean behinbetiko kontratuen ordez, aldiko kontratuak eskaini zizkieten kaleratu, baina hauek ez zuten eskaintza onartu. Orduan hasi ziren mobilizazioak eta negoziaketak, kaleratuak alde batetik, komite enpresak bestetik, harre-

manik galdu gabe. Enpresa komiteak jubilazio aurreratua, erregulazioak edota lan boltsak aipatu zituen, baina zuzendaritzak entzungor egin zien proposamen guztici. Orain dela hilabete inguru zuzendaritzak bat-batean beste proposamen bat egin zuen: zazpi langileak onartzea erabaki zuen, baina erregulazio sistema ezarriko zuen lantegian. Komitearen esanetan, erregulazioaren baldintzak oso gogorrak ziren, onartezinak, besteak beste 1995ko lan baldintzak finkatzeaz gain, ondorengo urteetakoak ere baldintzatzeko zituclako, eta langileen artean bozketa egin ondoren ez zen proposamena onartu. Zuzendaritzaren ekin-tza hura txantxatatzat hartu zuten Fierroko langileek, izan ere zuzendaritzak suposatzen omen zuen ezetza emango zitzaioela, eta era horretan kaleratzeen erantzukizuna langileen gain eroriko zela.

Urte gogorra datorkie gainera

Lan delegaziora jo zuen zuzendaritzak, kaleratuak eskaintzen zitzaizkien diru baldintzak onartzen ez zituztela. Enpresa komitea ere bertan izan zen, eta proposamen berri bat egite-

ko ekimena izan zuen. "Zuzendaritza ustekabearen hartu genuen, ez zuen horrelakorik espero" diote, "eta era horretan garbi geratu zen ez zela geurea gure lankideak kalean gelditzearen erantzukizuna". Bideragarritasun plan honi, nonbait, zuzendaritzak ezin izan dio ezetik esan, eta bere onespena eman ondoren sei kaleratuak lanera itzuli dira, eta plantila osoak egin beharko dio aurre erregulazio plan bati.

Aldarrikapen gehiago

Adierazi digutenez oraindik Fierroko langileek borrokan jarraitzeko arrazoi bat baino gehiago daukate: lehenengo eta behin, erregulazio baldintzak ahalik eta hobekien egokitu, eta bestetik denborarekin ordu extrak deuseztu. Dena den, lantegiaren izaera beragatik nahiko zaila izango dela uste dute: Fierro mantenimendu lantegi bat da, 24 orduz eskaintzen omen dute zerbitzua, eta ustekabeko lan asko sortzen omen dira urtean zehar. Dena den, plangintza egin daitekeela uste dute, honez gain aparteko orduen %75a kobratzea eta gainerakoa opor egune-tan berreskuratzea hitzartu nahi dute.




Etxeberrieta auzoaren eraberritzea

Eraikuntzak nahiko egoera kaskarrean daude

Etxeberrieta auzoaren ikerketa sozio-urbanistikoa eginda dago dagoeneko. Ikerketaren datuetan oinarrituta auzoa eraberritzeko proiektua ari dira une honetan egiten. Adituen esanetan auzoak eta bertako eraikuntzek ez daukate aparteko balio historiko-arkitektonikorik, baina herriaren bilakaeran eta izaeran izan duen garrantziagatik auzoa, ahal dala, konpontze eta berrikuntza lanak egin ondoren, mantentzeko nahia dauka Udalak. Ikerketa bizilagunen elkartearen aspaldiko eskakizuna izan da.

Lehenengo eta behin auzoa gune batzuetan nahiko eta beste batzuetan oso hondatuta dagoela argitzen du ikerketak. Horregatik bota beharreko eraikuntzen, konpondu beharrekoen, etxebizitzek eskaintzen dituzten bizi baldintzen eta ezarri behar diren zerbitzuen azterketak hiru helburu garbi dauzka: gaur egungo biztanlego kopurua mantentzea; bizi egoera eta kalitatearen hobekuntza, etxebizitzei dagokienez, batez ere; eta zerbitzu eta iharduera ekonomikoen zuzpertzeta.

Larramendi kalean guztira 22 etxe daude, horien artean zortzi baino ez daude egoera onean, bederatziz ez oso ongi, hiru gaizki eta bi zeharo hondatuta. 129 etxebizitza daude guztira, eta 105etan bizi da jendea. Lokalei dagokionez 17 daude, eta 10



Joan den mende bukaerako etxeak

hutsik daude. Dena den Larramendi Kalea eta Larramendi Atzealdearen artean badago aldea: etxebizitza huts gehienak kalean daude, Atzealdeko gehinetan bizi da ordea, jendea. Aipatzekoa da gaur egun auzotarrentzat lokal publiko bakar bat ere ez dagoela. Gaur egun 268 andoaindar bizi dira auzoan.

Historia

1858. urtean eraiki zen Algodonera lantegia herriaren hegoaldean, eta horren eraginez garatu zen ondoren Etxeberrieta auzoa. Biztanle kopurua asko igo zen orduan eraikuntzak Isturitzada dorreraino iritsiz. Auzoa, beraz, garai batean erret-bidea izan zenaren inguruan

eraikita dago. Larramendi kaleko etxeak joan den mende bukaerakoak dira eta Atzealdekoak berriz 1950. ingurukoak.

Lantegia eraiki aurretik Larramendi kaleko 1-31 zenbaki bitarteko etxeak ez ziren existitzen. Lehenengo etxeak 1859an eta 1864an egin zituzten, besteak beste: Merdilladi-berri, Laugarrena, Zeferinonea, Muñagorriena eta Etxeberri gotorkua, eta egungo Planttanea.

Etxeberrieta izena 1888. urtean agertu zen lehenengo aldiz. Eskoletxea 1905. urtean eraiki zuen Algodonerak berak, eskola umeak etxetik nahiz lantegitik gertu egon zitezten.

ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAUAK

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!

KALE BERRIA 22
TELEFONOA 59 44 76 - 30 01 67 **20140 ANDOAIN**

FRANCISCO MENDIKUTE
HARATEGIA



Kale Txiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN



Kaleko hezitzailea

“Gaztetxoak aspertu egiten dira Andoainen”

Carlos Argilea donostiarra uztaila geroztik ari da herriko gaztetxoekin lan egiten Diputazioako Ongizate Zerbitzuaren ekimenez eta herriko erakunde ezberdinen partehartzeaz bultzaturiko egitasmo batean. Herriko gaztetxoengana hurbiltzea da bere helburua, beti ere hezitzailearen ikuspegiarekin baina, ez eskola, ez etxea, ez beste erakunde formal batetik abiatuz, kaletik baizik, “euren parekotzat hartu behar naute, beste lagun bat bezala”, dio Carlosek.

“Eurengana hurbiltzeko biderik zuzenena erabiltzen dut”, dio, “baloi batekin eurengana joanez, eskoletan antolatzen dituzten ibilaldietan parte hartuz, eskolako jangelan eurekin bazkalduz edota Gabonetan egin genuen bezala ekintzak antolatuz”. Hurbildu ondoren, laguntza berezia behar duten gaztetxoei egiten die arreta berezia. Laguntza berezia behar izatea arrazoi ezberdinen ondorioa izan daiteke: eskolan arazoak, etxeko giroa eta abar. “Arrazoi horiek aztertu ondoren eta ikuspegi osoa hartuz norbanakako egitasmoak zehazten ditugu, baina euren egoera berezia osoa kontuan hartuz, era horretan Ongizate Zerbitzuko eta eskoletako ordezkariak beste arlo batzuetan egiten dute lan pertsona beraren inguruan” azaldu digu. “Normalean kalean ordu gehiegitaro igarotzen duten gaztetxoak dira, etxean giro onik ez dutenak, herriko ekin-tza eta taldeetan parte har-

tzen ez dutenak, eta behar bada, kalean dauzkaten harremanak kontuan hartuz, eredurik egokienak jasotzen ari ez diren gaztetxoak” esan digu Carlosek gaztetxo horiei buruz hitz egitean.

Herriko giroa

Carlosek lanean hasi aurretik herriari buruzko ikuspegia izatea ezinbestekoa izan du, horretarako herriko kultur, kirol, aisialdi eta bestelako taldeekin hitz egin du, hala nola gaztetxoekin beraiekin. Gaztetxoengandik jaso duen iritzirik nagusia Andoainen aspertu egiten direla da eta, eta ahal bezain laster Lasarte, Hernani eta inguruko beste herri batzuetara joaten direla. Informazio horrez gain, zenbait erakundetatik jasotako datuak hartu ditu kontuan. Hori guztia kontuan hartuz Carlosek herriari buruzko bere txostena osatu du. Hona hemen hainbat datu aipagarri: bertako eta kanpotik etortako jendearen arteko bereizketa kasu batzuetan, alegia integrazio eza; industriaren krisiak herriko familiengan duen eragin handia; aitarik gabe amarekin bakarrik bizi diren seme-alaba kopuru handia; orokorrean gurasoen maila kultural baxua. Baldintza hauek guztiak kontuan hartuz, Carlosen esane-

tan, badaude hainbat eta hainbat gazte herrian laguntza berezia beharko luketenak, “jakina, hori ez da gaztetxo gehien kasua, baina beste horiek ere hor daudela hartu behar da kontuan”. Aipaturiko gaztetxo hauei dagokienez, ez dute herriko ekintzetan parte hartzen, ikasketei ez diete arretarik eskaintzen eta ez daukate etorkizunerako inongo asmo eta ilusiorik.

Carlosen ustez Andoainen talde kultural ugari daude, baina beraien arteko isolamendua nahiko nabaria da. “Nire lana, besteak beste, gazte-



Altxorraren bila

txoak taldeek antolatzen dituzten ekintzetan parte hartzerantz animatzea da, baina horrez gain, gaztetxoek eurek jakin behar dute aspertzen badira, eurek bilatu behar diotela nola baiteko irtenbidea egoerari, horretaz ohartaraztea ere bada nere lana”, Carlosen hitzak izan dira.




FOTO-BIDEO-ARGAZKI

BIKOITZ


- Argazkiak errebelatzen ditugu
- Estudio argazkiak egin
- Karnet argazkiak instantean
- Ezkontza erreportaiak. Argazkiak, bideoak

KALE NAGUSIA, 19 behea
☎ 30 07 27
ANDOAIN

OCTAVIO CANORA
Dr. Huizi, 8 behea
ANDOAIN

PAPIRO

**KALITATE HAUNDIKO
KOADERNAKETAK**



Herriz herri

Asteasu

Gasaren lanak eten egin dituzte

Behin-betiko proiektua falta zen eta jendea kexu zen

“Repsol S.A” etxeak ez Udaletxean ez beste erakundeetan gas instalakuntza lanen behin-betiko proiektua agindutako epeetan ez aurkeztea, eta “Egaña Instalaciones” etxeak lanak egitean herritarren artean eragin dituen kexa ugariak behartu dute Udala lanak etenaraztera. Egun aurkeztuta dago proiektua eta lizentzia eman zain daude lanei berrekiteko.

Eusko Jaurlaritzako Industria sailak eman zion Repsoli Asteasun gas propanoa instalatzeko kontzesioa, eta horrek aldi berean Egaña etxeari agindu zizkion instalazio lanak. Lanean hasterako lanen aurreproiektua Udalean zegoen. Edozein eratako lan ekin baino lehen ezinbestekoa izan ohi da behin-betiko proiektua aurkeztea eta ondoren eman ohi du Udalak lizentzia. Baina herritarrak itxarotaz aspertu samar zeudela eta lan burokratiko arindu nahian Repsolek egun batzuetan agindu zien behin-be-

tiko proiektua Udalari, Eusko Jaurlaritzari eta Diputazioari. Baldintza horrekin ekin zieten instalazio lanei.

Etxebizitzetako instalazioak lehenengo eta gero kalean hodiak sartzeko erretanak egiten hasi ziren. Orduantxe sortu ziren arazoak: herritarrek kexa ugari aurkeztu zituzten Udaletxean erretanak behar bezala babestuta ez zeudelako, segurtasunik eskaintzen ez zutelako. Hortaz, batek behin-betiko proiektuaren atzerapena zela eta, eta bestetik, herritarren kexak zirela eta, Udalak lanak etenarazteko erabakia hartu zuen.

Lana txukun

Handik denbora gutxira aurkeztu zuen Repsolek behin-betiko proiektua. Une honetan, eta lan lizentziak bideratu zain, Udak teknikariak ari dira proiektua aztertzen. Horrezaz gain Udalak lanek gutxieneko segurtasun neurriak ongi betetzeko eta lana txukun egiteko agindu dio Egaña etxeari.

Gaur egun 80 metro inguru erretan daude herrian eginda, eta orain-



Erreten ugari herrian

dik ere Kale Nagusiaren atzealde osoa zulatu beharko da gasa herri guztira zabaltzeko. Lanak egin ondoren Eusko Jaurlaritzako Industria saila eta Repsolek berak dauzkan teknikari batzuen onospena beharko dute laneak.

Gaur egun 85 bizilagunek eskatu dute herrian gasa euren etxetara eramateko. Gas propanoa aukeran kontsumitzaileari eskaintzen zaion zerbitzu pribatua da. Udalak bi milioi pezeta inbertsioa egin du herrian instalakuntza egiteko.

Diputazioak onartu ditu Arau Subsidiarioak

1993ko urriaren 18an eman zitzaizkien Udalean behin-behineko onospena Arau Subsidiarioei, handik hilabetera behin-betikoa. Ondoren gaia Diputazioaren esku geratu zen erabakia har zezan. Duela gutxi jaso dute Udalean baiezkoko Diputazioaren aldetik.

Prozesua ez da ordea, horren xume eta leuna izan. Arau horien aurka egin zuten zinegotziak izan ziren, hala nola zenbait herritarrek Arauen kontrako alegazioak aurkeztu zituzten. Dena den, eta onospenaren ondoren arau hauek izango dira Asteasuko hirigintza garapena baldintzatuko dutenak.

Bertsotan nola egin?

Larramendi Bazkuneko Asteasuko Udalerri Biltzarrak antolatutako bertso ikastaroan bederatzai lagun ari dira



Ikasleak adi-adi

parte hartzen Mikel Mendizabal bertsolariaren zuzendaritzapean. Asteazkenero biltzen dira Kultur Etxean eta bertso zaharrak kantatuz eta puntuak osatuz poliki-poliki ari dira ikasten.

Herrian bertsozale ugari izanik, herrian bertan homelako eskaintza batek harrera ona izango zuelakoan antolatu zuten ikastaroa, eta kontaktu digutenez oso gustora ari dira. Bazkunak bere eskerronak eman nahi dizkio Asteasuko Udalari ikastaroa osorik ordaindu duelako.



AIURRIko komikigilea den Amasako Beñat Azurmendi hilaren 9an deitu zuten Donostiako epaitegira. Epailearen aurrera deitu duten laugarren gazte billabonatarra da, bere aurretik Lander, Tito eta Emi deitu zituzten. Orain arte Armatroste talde antimilitaristako beste lagunek egin duten bezala Beñat ez zen epailearen aurrean aurkeztu, eta bere abokatuak irakurri zuen bere orde deliturik ez egiteagatik epailearen aurrean ez aurkezteko izan duen arrazoia. Hori dela eta, Beñat gaur egun bilatu eta atxilotzeko agindupean dago. Horren ondoren zer gertatuko den, berak ere ez daki oso ongi, orain arte jarra baterakoirik ez baita izan intsumisoekiko.

Armatrosteke kideak ordea, epaitegiaren aurrean egon ziren egun horretan Beñati eta beste intsumiso guztiei elkartasuna adierazteko eta epaileen jarrera salatzeke. Bertan bildu zirenen artean Oinkari dantza taldeko, ski taldeko eta triatloneko taldeko kideak egon ziren. Arratsaldean berriz, dantza saio berezia eskaini zuten Errebote enparantzan.

Billabonako Udala Oiartzenen intsumisioaren aldeko Udalek sinaturiko agiriko partaideetako bat da. Dena den, Beñaten esanetan kontraesan latzean dago Billabonako Udala, alde batetik intsumisioaren alde agertuz, eta bestetik Gurutze Gorrikoei lokala utziz eta furgoneta erosiz. Azkenik, intsumisioaren aldeko mugimendua bizi izaten ari den bilakaez galdetu diogu Beñati. Bere ustez hasieran mugimenduak gorakada handia izan zuen, gaur egun oraindik gora egiten ari da eta bere ustez oraindik egingo du gorago, baina era apa-lagoan.



Beñat pankartaren atzean

Beñat Azurmendi intsumisioa epaitegian

Arropak biltzen

Oso harrera ona egin diote herritarrek deialdiari

**Sei lagunek osatzen dute Bizilan taldea. Orain dela urte t'erdi sendotza egin ondoren biltzen jarraitu duten gazteetako batzuk dira. Iraila inguruan biltzeaz gain, ekintza-
ren bat egin behar zutela erabaki zuten, behar handiena duten herritarrei lagunduz eta euren alkartasuna adierazteko. Asmo horrekin bururatu zitzairen arropa biltzen
hastea. Ekintza honez gain Hirugarren Munduaren alde ekintzak egiten hasi den beste gazte talde bat ere badago.**

Orain dela hilabete hasi ziren lehen erreto-reak bulegoa zeukan etxean, alegia Irrintzi taberna gainean dagoen etxebizitzan arropa biltzen. Eta lehenengo astean hamarren bat lagunek eraman zuten arropa, arropa ugari eta erabilgarria, gainera. Izan ere, gazte hauek ez dute hondarririk bildu nahi, probetsuzko arropa nahi dute jendeak erabili ahal izan dezan.

Herrikoei

Herrian beharra daukatenei ematea da beraien lehenengo helburua, izan ere badakite Tolosako Karitatera jendea joaten dela arropa bila, eta baita uztea ere. Jendearengana iristeko, beharbada, zail samarra egingo zaiela eta, Karitasen bitartez iristea espero dute beharra dutenengana.

Hilean bi aldiz egongo dira gazte hauek arropa biltzen aipaturiko tokian, hilaren lehenengo eta hirugarren astelehenean. Beraz, arropa utzi nahi dutenek bertara hurbildu besterik ez dute egin behar. Jakina da beraiek ez direla herrian arropa biltzen arituko diren bakarrak, atari eta hormetan txartel ugari ikusten baitira asmo berarekin. Gazte hauek pentsatzen dute herrikoak izanda, eta arropa herrian bertan geratuko dela jakinda, harrera ona egingo zaiela, eta arropari atarramendu ona aterako diotela behar dutenek.



Arropa erabilgarria nahi dute



Finalera iritsi ziren "joko-garbian"

"Errebotean hasi edo kiosko bat egingo dugu herriko plazan"

Jon Alejo eta Sergio Sánchezek jokatu zuten joko-garbian urtarri-laren 14ean Baigorriin Askaingo bikotearen aurka kadete kategorian. Partidua galdu egin bazuten ere, finalera iristeak ez du meritugutxi esan nahi, izan ere orain arte billabonatarrek ez dira bigarren mailatik igo. Billabonako errebotek eta joko-garbiak ezagun dute aurrera egiten ari direla. Behar-Zana elkarte da, hein handian, arrakasta horren erantzule.

Iparaldeko txapelketan parte hartu eta finalera iristeak aparteko garrantzia izan du frontoi joko hauetan iparralde aintzindari eta erreferentzi puntu hegoaldeko Billabonako eta Zubietako taldeentzat. "Orain oso gaztetan hasten gara euren kontra jokatzeko" azaldu digu Jose Antonio Jauregik, Behar-Zanako pilota arduradunak, "eta aldea oraindik handia baldin bada ere, poliki-poliki ari gara euren mailara iristen".

Behar-Zana

Elkartea 1946. urtean sortu zen. Garaiko pilotariet diotenez, orduko alkatearen mehatxu baten ondorioz:



Jon eta Sergio Amasako pilotalekuan

"Errebotean jokatzeko hasten ez bazarete, musika kiosko bat egingo dugu enparantza erdian". Era horretan eutsi zioten jokoari eta mantendu da gaur arte.

Antzinako frontoi jokoak dira errebotea eta joko-garbia, garai batean Euskal Herriko txoko askotan jokatu zen. Gaur egun Billabona eta Zubietan baino ez. Jauregik kontatu digunez inguruko herrietan ere jokatu zen: Andoainen azkenengo partidua 1975. urtean jokatu zuten Billabona eta Zubietako taldeek elkarren kontra.

Bi joko hauen galeraren arrazoiak bi dira Jauregiren esanetan: batetik, frontoiak, alegia herrietako enparantzak, beste zeregin batzuetarako egokitu dituztelako, "herri erakundeek ez dute kontu izan eta errebotea galdu egin da". Horren lekuko 1952an Donostian egin zuten errebote plaza munduko txapelketa jokatzeko. Poliki-poliki eskubaloian jokatzeko erabiltzen hasi ziren, eta gaur egun kiroldegia da. Beste arrazoiak, bere "ofizialtasun" eza da: "Olinpiadetan plaza libreko jokoak ez dituzte ofizialtzat hartzen" kontatu digu Jose Antoniok.


HERCULES
Aseguruak ARGENTARIA
Amaia Kortajarena
Bulandegia bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34
ZIZURKIL



BEIBATEGI
J A T E T X E A
Bulandegia baserria ZIZURKIL ☎ 69 21 78
•Eguneroko menua
•Bataioak
•Jaunartzeak
•Ezkontzak

VAC VAC **HOL - ATZ** **HICKSON**
VACSOL - W/ TRATAMENDUA EGURRARENTZAT
OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA
PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA
Agaitz auzoa, z/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
BILLABONA

BENITO
HARATEGIA
URDAITEGIA
KALE NAGUSIA, 22 ☎ 69 11 49
ARROA KALEA, 4 ☎ 69 13 50
BILLABONA



Erretaularen atzeko margoaz

Agerian uzteko erretaula eta presbitergoa aurrerago eraman beharko dira

Apirila alderako egongo da San Esteban elizako erretaula eraberrituta. Hala ere, konpontze lanak egiten ari zirela adituek aurkitu zuten margoa dela eta, erabakitzeaz dago erretaula non jarri. Izan ere, adituen esanetan hasieran uste baino balio handiagoa dauka margoak, eta berri eta erakusteak mereziko luke. Diputazioko Artelekuk margoari buruzko txosten teknikoa egin du, eta momentuz Udala bere erabakiaren zain dago.



Hauxe da baliorik handiena daukan margoa

Elizaren abside erdian dago margoa eginda. Berpizkunde garaiko apaindurak dauzka gehienbat. Margoa une honetan hauts eta zikinkeriaz estalita dago, baina aingeru batzuek gain Jeremias eta Isaias apostoluen irudiak nabarmentzen dira. Hala nola, kalbario bat dago marraztuta San Juan eta Ama Birjinaren irudiekin. Zikinkeriaz estalita egoteaz gain kare aztarnak ere baditu margoak. Bestalde, ez dago hormari oso ondo itsatsita eta arrailadura batzuk ere badauzka.

Erretala aurreratu

Adituak ez dira margoa elizaren beste toki batera eramatearen aldekoak. Batetik, eraikuntzaren hondamena gertatzen den kasuetan kenduta, margo originalak mugitzea ez delako inoiz gomendagarria. Bigarrenik, margoek lotura estua izan ohi dutelako eraikuntzaren arkitekturarekin, eta lekuz aldatzea lotura hori haustea litzatekeelako. Hirugarrenik, kokalekuak, bertan dagoen espazioak eta

argiak alegia, margoaren irakurketa-rekin zeresanik izan ohi duelako, eta hori errespetatu egin behar dela uste dute. Azkenik, arrazoi ekonomikoa ere aipatzen da lekuz ez aldatzeko, izan ere aurrekontua bera hirukoiztu egingo litzateke.

Adituek konpontze lanak lehenbailehen egitea gomendatzen dute, ez Euskaldin ez Espainian horrelako margoak ez baitira ugariak. Margolana berez, ez omen da lehenengo mailakoa, baina bestalde Euskal Herrian garai hartan -erretaula XVI. mendekoa da, eta pintura zaharragoa izan daitekeela pentsatzen dute- aparteko margolaririk ere ez zela izan kontuan hartu behar da, beraz horrelako lanak balio handikoak izan daitezke.

Beraz, aurrekontuak gora egingo badu ere, margoa agerian gera dadin egokiena erretaula eta presbitergoa aurrera mugitzea izango dela uste dute adituek.

URBIETANNAIAK GARRAIOAK KALITATEZKO SU EGURRA



- Neurrira moztuta eta urte osoan
- Haritza eta pagoa
- Etixerainoko zerbitzua


GARRAIOAK ORO HAR

Larraulgo plaza, Etxeberri etxea, 1 - ☎ 69 35 76 - LARRAUL

AURRERA TABERNA

Girorik ederrena gazteriarentzat!!

ZIZURKIL



Zarate parkeko proiektua

Motzane etxaldea hartzen du bere baitan

Udalak Zarate parkeko aurreproiektua esku artean dauka hilabeteetako lanaren ondoren. Bertan adierazi digutenez une honetan parkea ez da Udalaren lehentasunetako bat, eta ziur asko, epe luzera gauzatuko den egitasmoa izango da.. Aurreproiektua, dena den, une honetan arkitekto eskolan ari dira aztertzen, eta behin onartu ondoren, Udalaren esku eta bere baliabideen ekonomikoen baitan egongo da proiektua nola eta noiz gauzatu.



Zarateaitzetik ikusten den bista

Zarateaitz muinoaren magalean dagoen egungo Illaratxueta etxaldea hartzen du bere baitan parkeak. Motzane izenez ezagunagoa. Inguruko lur sail batzuekin batera 300.000 m2 inguru ditu. 1993. urtean erosi zuen Udalak etxaldea, sute handi baten ondoren. Ordurako ez zegoen bertan nekazal hustiapenik eta egun existitzen den Illaratxueta baserriaren hondarrak baino ez zeuden. Ordura arte pinuak zeuden gehienbat bertan landuta, eta behin Udalak erosi ondoren ekin zitzaion zenbait haritz, pago eta gaztainondo landatzeari ingurua berreskuratu nahian. Zarate parkea Pagoeta-Ernio-Andatza inguru naturalaren barruan dago kokatuta.

Aisia naturan

Egitasmoaren helburu orokorra kontserbazio egoki baterako espazio natural bat berreskuratzea da. Aisi orokorrerako ekipamenduz hornituko da, ingurugiroaren sentiberatasunera eta naturaren gozamenera bideratuta. Besteak beste, egun inguruan existitzen ez den aisiarako aukera herri bat eman nahi zaie heritarrei, gizabanakoa ingurugiroaren gaira hurbilduz.

Udalak bere aldetik ikusten du, halaber, herrira turismoa erakartzeko beste bide bat izan daitekeela, horrek eragin dezakeen zuzpertzeko ekonomikoa kontuan hartuta. Bestalde, udalerriko balio natural, historiko eta kulturalak ezagutzera emateko era bat izan daiteke. Eta azkenik, Udalak lur sail publikoak berreskuratzen hasteko filosofia ezarri nahi du.

Zonak

Parkea zona batzuetan banatuta egon daitekeela aurrerakusi dute: 25-30 kotxe ingururako aparkalekua, zaldi ibilaldietarako atsedeen tokia, sarrea nagusia, lautada, bi *picnic* area, landaretza berezia babestuta egongo diren sail ba-

tzuk, haur jolasetarako gune berezia, informazio bulego bat eta gune guztiak bilduko dituen zirkuitoa.

Informazio bulegoari dagokionez informazioa jaso ahal izateko harrera tokia izango litzateke. Erakusketa bat ere egongo litzateke parkean ikus daitezkeen gauzei eta bere historiari buruz. Eta era berean, bertan egongo lirateke komunak eta taberna txiki bat.

Urrezko ezteiak



Zorionak orain dela 50 urte ezkondu ziren Praixku Alkorta Usabiaga eta Inaxi Aranburu Alberdiri. Zizurkilgo San Millan parrokian ezkondu ziren 1.945eko otsailaren 8an, hain justu. Praixkuk 40 urte betetzeko hiru egun falta zituela eta Inaxik 31 urte zituela.

Jakin badakigu bikoteak eta familiak ospakizunak egin dituela, otsailaren 11an, Praixkuk 90 urte bete zituela aprobetxatuz. Beraz, bi aldiz zorionak!

Txantxoz jantzita

Ijito hungariarrek ekarri dituzte Andoainera askatasun eta alaitasun haize berritzaileak

Ihauteriak garizuman sartu aurretik egiten diren ospakizunak ditugu. Jaiak igaro eta berrogei egunera emango zaio Aste Santuari hasiera, Pentekoste egunean bukaera emanez. Bien bitartean asteazken eta ostiraletako barau eta haratuzteak pasatu behar. Hori guztia Elizak ihauteri jaiari eman dien kutsu erlijiosoa baino ez da, alegia, kristau gogoari penitentzia egunak hasi aurretik, baimentzen zaizkion azkenengo jai, askatasun eta alaitasun egunak dira ihauteriak. Ihauteriek ordea, badute edota izan zuten, oso bestelako ikuspegia. Neguko jaiak izan ohi ziren garai batean. Baserrietan negua luzea eta hotza izan ohi zen. Orduan otsail inguruan hasten ziren egunak luzatzen eta eguraldiak hobera egiten zuten. Jende xumeak beraz, udaberri itxura hartzen hasten zen sasoiari hasiera emateko ospatu

ohi zituen ihauteriak, hau da, negu gogorraren ondoren baserri, landa, soro, baso eta zelaien piztuera ospatzen zen.

Urtarril bukaeran Nafarroako Ituren eta Zubietako herriak izan ohi dira Euskal Herrian ihauterien iragarle, eta ziur aski, zanpantzarren ttuntturro hotsek harreman zuzena izango dute naturaren berpizte horrekin. Beterrin gutxi batzuk bakarrik hasi dira arestian euskal ihauteria ospatzen, Zizurkilen hain zuzen ere. Billabona, Asteasu, Larraul, Aduna eta baita Zizurkilen ere Tolosarako joera dute, eta txilabak soinean, Tolosan bertan daramatzate aspaldiaz geroztik ihauteriak ospatzen. Andoainek, Tolosa eta Donostiako erdibidean, urteak egin ditu bere ihauteriak antolatu eta ospatzen. Jai egun hauei Andoainen, Tolosako nahiz Donostiako kutsua darie.



© J.I. UNANUE



© E. TRUCHUELO

Zenbat gizonezko ez ote du egun horretan emakume izaera hartzen

“Ostegun gizen, ostiral flako, larunbat erregular, igandea karnabal...”, horrela esaten zitzairen lehen ihauteri egunei eta horrela esaten diete batzuek oraindik. Inoiz ihauteri egunak eguneroko bizimodutik “ihes egiteko” egunak izan badira, are gehiago herri xeheak agintari orotarikoen akuilua horren gertu eta estu zeukan garaietan. Orain 60-70 urte

mutil koskorrek eta gaztetxoek jai baido ez zen izaten Joxe Eizmendi andoaindarraren esanetan. Emakumezkoek ez zuten parte hartzen. “Edozer gauza jantzita irten ohi ziren mutilak, trapu zaharrak gehienbat. Eta mozorroaren eta pozaren aitzakiaz, neska gazteengana hurbiltzeko aukera paregabea izan ohi zen”, aukerak urriak baitziren bestela, esan



Fantasiaren irudi

digunez. Mozorro batzuk, alabaina, espreski debekatzen zituen Udalak nahiz Elizak: monja, fraile eta soldadu mozorroak. Galerazita zegoen pertsonaia hauek herrian barregarri agertaraztea, eta horretaz agoazila bera arduratzen zen behar zenean isunak jarriz.

Garai batean monjaz, prailez eta soldaduz morrorrotzea debekatuta zegoen

Ostegun gizen eguna haurren eguna izan ohi zen. Herriko ume guztiak enparantzako arkupeetan bildu ohi ziren. Ttuntunlariak lagunduta eta eskutik hartuta Etxeberrietaraino jaisten omen ziren. Han ardo goxoa eta gailetak ematen zizkieten eta herria berriro zeharkatuz Kale Txikira abiatzen ziren. Han berriro izaten zuten ardo zuria eta gailetak dastatzeko aukera. Jaiak enparantzaren amaitzen zuen dantza saio batez.

Larunbaten berpizten ziren berriro animoak. Oraingo honetan herriko koadrila guztiak taberna eta sagardotegietan ibili ohi ziren jan-edanean, eta sagardoaren euforiaz makina bat zeziotan. Kaletxiki eta Karrikakoen arteko lehiak ohizkoak izan ohi ziren orduan. Igandea izan ohi zen ondoren egun handia. Bandak eta ttuntunek animatu ohi zuten eguna.

Elizaren mendekua

“Astelenitak, Asteartitak eta Hauster Egunak” jarraitzen zieten algara egunei, edota Joxek berak dioen bezala, “Elizaren mendeku egunak”. Astelenitan “txantxo eskean” joan ohi ziren herriko gazteak baserriz baserri. Halaxe kantatu ohi zuten: “**Hor goian elizan/ kanpaia jotzen dabiltza/ etxe honetako etxekoandrea/ Ama Birjiña dirudi**”. Ziur aski, ibilaldi hauek gutxienekoak izango ziren, oraindik ere parranda giroan ibiltzen baitziren. Astelehen eta astearte goizaldeko “damu eta or-



Umetako garaiak nola ahaztu?

dain mezek” ordea, ez zuten txantxetarako lekua uzten. Apaiz batek meza eman eta pulpitotik demanda egin bitartean, bestea tabernaz taberna ibili ohi zen fedegabeei kargu hartzen, “txakurra botatzen”. Behin hauster eguna igaro ondoren berriz, misioak hasi ohi ziren, eta horrek eliztarren meza, barau, eta karitate egunak gehitzen zituen. Egun haietan gutxi ziren Tolosara joaten zirenak: “Modua behar zen” esan digu Joxek, eta jakina, jende printzipalak baino ez zeukan horretarako modua.

Kaldereroak

Kaldereroen jaia ez da aspaldiko, aurtengoa beraien zortzigarren urtea izan da. Hungariako ijito koadrilak Kaletxiki izan ohi dute abiapuntu. Hungariatik abiatu eta 1884. urtean Donostiatik lehenengo aldiz igaro zirela diote hiriburuko kronikek. Urte dexente behar izan zituzten Andoainera hurbiltzeko, hala ere. Kantu artean era honetan sartzen dira urtero herrira Kaletxikin barrena Ontza elkartean horren urrutitik etorri ondoren, ongi merezitako afari legea eginda: **“Adiskide maiteok, ekin ba lanari!/ Kriseilu, lapiko, pertzeak/ burruntzali eta eltzeak/ aise konpontzen gu gara/ merke eta tre-beak./ Eta lan musutruke/ pozik egingo genuke/ hor goiko neska politek/ eskatzen badigute/ Andoaindar neska ponpoxak/ ez al dugu beste lanik/ aurtengoz badugu aski/ eta goazen aurrera./ Kontu izan, agur gisa/ kaldereroek kantatzen/ berriz ere egun batez/ joko dugula tak-tik-tak”**. Aurten karrozaren aurretik bibolinez eta soinu lagunduta gizonetako batzuek kantuan iragarri dute Erregina eta bere konpainia dama dotoreen etorrera. Bestelakoan, karrozak bere ohizko segizioa izan du gizonetakoak zartagi-

nez eta ingudez erritmoa ezartzen eta emakumezko eta haurrek atzean kantatzen. Aurten gainera andoaindarren ikusmina sortu duten auskalo-nongo zaldi batzuz lagunduta etorri dira hungariarrak.

Andoain egun batzuetan Erregina berriaren agindupean egongo da

Jaioterri jakineko jendea ez bada ere, argi dagoena herri hau askatasun eta alaitasun adierazle dela. Eta ihauterien iragarle izateaz gain, Andoain egun batzuetan herriko gobernazioa ere eskuratu du herri hungariarren Erreginak. Kanpamendua Goikoplazan ezarri ondoren aurten ere ikusi ditugu Erregina dotorea eta bere dama pertxenta Udal agintarien eskutik makila hartu eta herriko gorabeherak, gertaera eta pasadizuak herriari gogoratuz.

Ihauteriak beraz, iragarrita daude, orain gelditzen diren egunak ospatzea falta da. Ostegunean txikienak ikusi genituen goitik behera mozorrotuta, itxuraldatuta, herria kolorez betez. Larunbateko desfileak bereganatuko du herritarren harreta gehienbat hurrengo egunetan. Igandeak ere hartu du orain urte batzuk ez zeukan sona, hala ere oraindik asko dira igande arratsaldean Tolosako bidea hartzen dutenak. Gelditu ohi direnak, hala ere, sardinaren ehorzketan parte hartzeko moduan izango dira eta ondoren izango den dantzaldian. Eta hortik aurrera modua eta gogoia edukiz gero, Tolosako kaleetan jarrai daitezke ospakizunak txantxa giroan txantxoz jantzita.

Billabona

Zubiberri: ahateen zaindari

1.000 ahate inguru hazi dira lau urtez geroztik

Billabonatik, ibai ertzetik igaro, eta nork ez die behin edo behin ertz batetik bestera igeri ibili ohi diren ahateei erreparatu? Ahateei batek baino gehiagok, ziur aski, eta egunero jana ematera joaten zaizkien Isidro edo Migeli billabonatar gehintsuenek. Zubiberri elkartearen ordea, ez da hain ezaguna, nahiz eta elkarte honetako kideak izan Oriango horrenbeste ahate egotearen erantzule. Jubilatuta eta gero hasi ziren ahateak hazten eta zaintzen, denbora pasa. Denborapasa horri esker, dena den, billabonatarrek ezezik, inguruko herrietako biztanleek ere zentzumenak goza ditzakete animalia hauen zalapartak ikusten eta karrakak entzuten. Izan ere, Isidrok dioen bezala, "polita da, ezta?".

AIURRI: Zergatik Zubiberri izena?

Isidro eta Migel: Zubi berria egin behar zutelara eta...

A: Noiz sortu zen, eta nolatan?

I.M: Orain dela lau urte sortu genuen elkarte. Erreka tabernakoak dozena erdi abate jarri zituzten ibaian, Portu lantegi inguruan hasi ziren arrautzak jartzeko. orduan bertan txitategia jartzea bururatu zitzaigun eta horrela hazi genituen lehenengo abateak.

A: Zenbat lagunek osatzen duzue elkarte?

I.M: Sei lagun gaude guztira. Dena den, ahateen kontu honetan beste laguntzaile asko ere baditugu. Oriango erretzean bizi diren bizilagun askok laguntzen digute jana botatzen, edota arrautzak zaintzen. Euren ere, nonbait, gustatu egin zaie.

A: Zeintzuk izan ziren lehenengo urratsak?

I.M: Abateek erreka bazterrean jarri ohi dituzte arrautzak. Aldiko



Azken urteetan ahate kopurua mantendu egin da

11-15 inguru. lumaz egindako kabinetan. Hortik hartu eta txitategira eramaten genituen. 22-28 egunetara hasi ziren lehenengo txitak jaiotzen. Bi hilabetez zaindu genituen kaxetan sartuta eta gero uretara bota genituen.

A: Eta hantxe gelditu al ziren?

I.M: Urria edo azaro aldean abateak toki beroagoetara joaten dira. Ibaian urak gora egiten du, eta ezin izaten dute urbazterreko belarrik jan eta. Lehenengo eta bigarren urtean eraztun txiki bat jarri genien banketan, eskuinean lehenengoan eta ezkerrean bigarrenean. Ez dugu eraztun bat ere jaso. Eta normalean ehiztariek ahateren bat bota eta eraztuna ikusiz gero, bere jatorrira bidaltzeko obitura izan ohi dute. Beraz, ez dakigu zer gertatuko zen...

A: Oraindik txitategia erabilten al duzue?

I.M: Arrautza gutxi batzuk baino ez ditugu eramaten. Orain euren kasa jaiotzen eta bazten uzten ditugu. nabiz eta gehiago kostatu, xagu.

katu eta bi banken gainean ibili ohi diren barrapalarien batzaparretatik libratu behar baitute. Hala ere, urtero jaio dira abate berri mordoska.

A: Lau urte hauetan zenbat ahate hazi direla uste duzue?

I.M: Mila inguru, ziur aski.

A: Noiz jarri ohi dituzte arrautzak?

I.M: Honez gero hasiak dira, hilabete honetan bain juxtu. Haurak, hala ere, txoriei bezala gertatzen zaie. trumoiak egonez gero, arrautzak galdu egiten dira.

Arrautzak ez dira jangarriak

A: "Ez arrautzik hartu" dioen kartel bat ikusi dugu.

I.M: Arrautzak barrapatzea oso akzio ona ez bada ere, jendea obartarazi behar zaio, berez ahateen arrautzak oso gozoak diren arren. Oriango bazitakoak ez direla jangarriak. Ibaian gai toxikoak dau-

de eta kalteak eragin ditzakete arrautzek.

A: Lan handia ematen al dizue?

I.M: Nik -dio Isidro- egunero-egunero goizeko bederatzia aldean etorri obi naiz jana ematera. Pent-sua gordetzeko kaxa bat daukat ibai ertzean eta handik jana bartu bezain pronto, inguratzen zaizkit abateak. Hiru tokitan botatzen zaie jana.

A: Ezagutzen al zaituzte, bada?

I.M: Nola ez, ba. Izugarri polita da goizean zalapartaka eta karraka egiten basten direnean ikustea. Arratsalde aldean, ilundu baino lehen ere began basten dira eta ikuskizun paregabea da. Gainerakoan uretan egoten dira freskatuz.

A: Orduan ibaia nahiko garbia al dago?

I.M: Abateak bizitzeko adina bai. Dena den, esan dugun bezala, ezin da ez abaterik ez arrautzik jan. Orain hamar urte Orian gaur egun dauden abateak eta amorrainak ikustea ezinezkoa izango zen.

A: Ekologistak al zarete?

I.M: Ez, ez. (Isidro- aitortu digu urte askotan ebiztaria izan dela, eta gaur egun oraindik ere arrantzalea ere badela. Bere burua "ebiztari damututza" barten du).

A: Ahateak zaintzea, ez da "lehengo bekatuetatik libratzeko penitentziren bat izango, ba?

I.M:...

"Polita da eta maitasuna hartzen zaie"

A: Kontaiguzue zerbait aha-teen bizimoduari buruz?

I.M: Lehenengo eta behin, argitu ikusten dituzuen boriek guztiak ez direla abateak (nonbait, susmatu du ez ditugula ezberdintzen): abateak, antzarrak eta uroiloak daude. Antzarrak gangar txiki bat daukate, eta uroiloak berriz, moko gorri-gorria eta zorrotza. (Ongi erreparatuz gero, erraza da ezberdintzea).

A: Eta nola bizi dira?

A.I: Talde bereiztuetan bizi dira: antzarrak euren txokotan, uroiloak berean eta abateak euren. Batzuetan elkartzen dira, baina ondoren

bakoitza bere taldearengana joaten da. Talde bakoitzean buruzagi bat izaten da, eta hari jarraitzen diote denek. Iladan ibiltzen dira normalean, bata bestearen atzetik, eta lehenengoak egiten duena egiten dute beste guztiak. Badaude, adibidez, Portu aldean beti elkarrekin ibiltzen diren zazpi antzar, eta Salvadora pasatu eta zubian uroiloak egoten dira, hauek egoskorragoak dira. Beti elkarrekin ibili obi dira ama eta bere kumeak. Urtebete inguru betetzen dutenean arrak eme bila basten dira, baina emea lortzeko buruzagiarekin borrokatu behar du arrak.

A: Bejondaiela!

I.M: Borroka gogorak izaten dira gainera. Handik aurrera bikotea ez da inoiz bereizten. Arrak emea txitatzen ari den bitartean



Ehundaka arrautza ibai ertzean

erne zainduko du, eta baten bat arrautzak harrapatzera burbilduz gero, aurpegira salto eginez erasotuko dio. Antzarrak dira ankerrenak. Bestalde, erreka txikietan debeatuta dago abateak egotea, ur gutxi dagoenez, amorrainen arrautzak jaten dituzte eta.

A: Zenbat urte bizi ohi dira.

I.M: Txoriak bezala, hamabiren bat urte.

Zubiberri elkartekoek beren zale-tasun honi esker kanpoko jendea Bil-labonara ahateak ikustera eta argazkiak egitera joatea ere lortu omen dute, eta harro daude. Iruditzen zaigu ahateak zaintzea zaletasuna baino gehiago bihurtzen ari dela urteak pasa ahala sei lagun hauentzat: "Polita da, eta maitasuna hartzen zaie" azaldu digute.



Antzarrei jana ematen

Nekazaritza biologikoa

Kimikarrik gabeko nekazaritza baino areago, bizimodu oso bat

Nekazaritza biologikoaz galdezka joan gara gai kimikoen erabilera ezara mugatzen zelakoan, erantzun egokiagoa aurkitu dugu ordea: lurraren emankortasuna mantentzean eta lantzearen txandaketa sisteman oinarritzen da nekazaritza biologikoa edota ekologikoa deritzona. Biolur elkartea, Nekazaritza Biologikoaren Aldeko Elkartea, ihar-duera hori bultzatzeko eta kontsumitzaileari ezagutzera emateko asmoarekin jaio zen orain bi urte, hain zuzen ere. Horrez gain, produkzioaren eta merkatuaren arloan ere bere esparru propioa aldarrikatzen dute. Dena den, gure elkarrizketatuarekin egon ondoren nekazaritza biologikoa hori baino gehiago ere badela iruditu zaigu; gure osasunarekiko, elikagaiekiko, ingurugiroarekiko errespetuzko harremanetan oinarritutako bizimodua da. Biolur elkartearen bidez saiatu gara Beterrin inguruan horretan dabilen nekazariren bat aurkitzen, baina ez dugu bat bera ere aurkitu, horregatik jo dugu Itsasoko Ariztizabal baserrira Xabier Akizurekin nekazaritza biologikoari buruz hitz egitera.

Beterrin ez dugu inor aurkitu, horrek ez du esan nahi ordea, halako nekazaririk ez dagoenik, izan ere nekazaritza biologikoa ez da gauza berria, aitzitik, lehengo baserriar gehienek, egungo bide produktibistan sartu aurretik, nekazaritza biologikoa egiten zuten, eta oraindik ere horrela lan egiten duenik badago. Kaletik baserrira joandako gazteak nekazaritza mota bat edo bestearen aurrean aukeratu behar izan duenean, hala ere, biologikoari eutsi dio gehienetan, askotan bata eta bestea alderatzeko aukera ere izan duelako kontsumitzaile bezala.



Osagai naturalez egunean egindako ogia

Nekazaritza biologikoak arlo ezberdinak dauzka ohizkoak bezalaxe: barazkiak, fruituak, ogia, esnea, gazta, ganaderitza eta abar. Batzuk besteak baino garatuagoak daude, izan ere esnearen edo ganaderitzaren eta beren komertzializazioaren kasuan adibidez, ohizko nekazal gaiak dauzkaten arazoez gain, esne edo haragi biologikoaren esparru komertziala ezartzea are zailagoa da.

Lurraren emankortasuna mantendu eta lantzea txandatu

Nekazaritza biologikoak bi oinarri nagusi ditu: batetik, lurraren emankortasuna mantentzean datza, alegia lurrari jana ematea, eta horretarako Euskal Herriko ganadu ugariari esker ximaurra erraz lortzen da; bestetik, monokultibo ahalik eta gutxien egiten saiatzen dira, txandaketa sistema erabiltzen dute, lurrik berez duen orekan gehiegi ez eragi-

teko. Dena den, eta Xabierrek dioen bezala, baratza berez ez da lurra beraren egintza, gizakiaren ezarpena da, horregatik moztu izurrite eta beste gaitz batzuen kasuan ezin daiteke lurrarengandik babes osoa espero, "guk matendu behar dugu ezarritako oreka". Baina horretarako ere gai naturalak erabiltzen dituzte gai mineralak edo landare gaiak adibidez, azufrea, kobrea, jaboia, nikotina eta abar.

Errentagarritasuna

Nekazaritza biologikoa oraindik ere ez da kimikoa bezain errentagarria, eta oraindik ere baserriar gehienek bide hori aukeratzen dute. Biolur elkartearen ahalegin handienetako bat ekologikoa ere "errentagarria" izan daitekeela ikustaraztea da. Baina, jakina, horretarako produkzio sistemari eusten dioten elementu asko desegin beharko dira. "Nekazariari kimikaren bidea aukeratzera behartu zaio produkzioa handitu egin behar zuelako, kostuak murriztuz" azaldu digu Xabierrek, "eta baserriarra, eta bide batez gu guztiok, lurrarekin zorretan geratu gara, bere



Fruitu arbolei neguko tratamendua eman behar zaio

oreka hautsi ondoren ere, ez duelako berreskuratu. Horregatik espero dugu epe ertainera nekazaritza biologikoa 'errentagarriagoa' izango dela, edota itxaropen hori daukagu, behintzat".

Harreman zuzena ekoizle eta kontsumitzailearen artean

Nekazal gai biologikoen komertzializazio egokia funtsezkoa da zeregin honetan. Xabierren ustez poli-

ki-poliki gero eta gehiago apreziatzen ditu jendeak euren gaiak, "zaharrek zaporean antzematen dutelako ezberdintasuna, eta gazteek ideologiaz". Izan ere, Xabierren ustez "nolako produktuak erosi, halako mundua egin". Bestalde nekazal produktuen kalitatea ez du uste nekazariaren ardura denik soil-soilik, kontsumitzaileek eta erakundeek ere zeresan handi dutela uste dute. Eta erakundeei dagokienez, Biolur elkarteak aspaldi eskatu zion Eusko Jaur-laritzari egun Madrillgo gobernuaren esku dagoen "produktu biologikoen labela" eskuratzea, horretarako eskubidea ba-

dauka eta. Label horrek euren gaien komertzializazioari mesede handia egingo liokeela uste dute. Momentuz, nekazari horiek euren kasa ari dira saltzen, kontsumitzailearekiko harreman zuzenean oinarritzen dira.

Bata eta bestea

Nekazaritza biologikoa eta bestea alderatu nahi izan ditugu nolabait, eta fruitagintzaren adibidea eman digu Xabierrek. Normalean fruitu arbolek fruitu gehiago eman ditzaten nitrogenoa botatzen zaie udaberrian. Nekazari biologikoa ximaurra baino ez du erabiltzen. Horren ondorioz produktzioa %20 inguru jaisten da. Arbolaren ingurua landarez garbi mante-

tzea izan ohi da nekazariak aurre egin behar dion beste arazoetako bat. Normalean baserritarrak inguruak kiskaldu egiten ditu, biologikoak berriz, landareak eskuz kendu behar izaten ditu edota beste sistema natural batzuen bitartez babestuz.

"Ezagutza intuitiboa berreskuratu beharko genuke"

Horiek guztiak entzunda nekazari biologikoa ohizkoak baino prestaketa eta ezagupen maila altuagoa daukan edota behar ote duen galdu diogu Xabierri. Inor gutxietsi nahi izan gabe, ongi azaldu digu bi ezagupen mota daudela: teknikoak bata, intuitiboa bestea, "ziurra da lehenengo baserritarrak askoz ere intuizio finagoa daukala" argitu digu Xabierrek, "eta oso ona izango litzateke berau berreskuratu eta arrazionalizatzea beraz baliatzeke". Dena den, egia da nekazaritza biologikoa edozein arlo edota ofiziotik bezala, prestaketa berezia behar duela. Batek eta besteak egin behar duen lanari dagokionez, bi lan mota ezberdin direla argitu ditu, nekazaritza biologikoa prebentzio mailan egin behar da lan gehiago eta horrek ardura eta arreta bereziak eskatzen ditu.

Biolur elkarteak orain dela bi urte jaio zen, eta denbora honetan bide luzea egin du ezagutzera eman eta kontsumitzailearengana iristeko. Euren berri izateko ere urtaroeekin batera kaleratzen dute aldizkari bat. Interesaturen batek informazio gehiago nahi izanez gero, Bergarako Nekazal-Etxean daukaten egoitzara jo dezake. Hauxe da beren telefonoa: 76 63 41.

LOATZO ASEGURUAK - ASESORIA



LOATZO

ZURE ETORKIZUNA
BIZI ASEGURUA

JOXERRA GARMENDIA MUJIKA
IBON GARMENDIA UGARTE

Antxin kalea, 3 behea - ☎ 69 39 13 - Faxe 69 38 43 BILLABONA



AUTOEN MEKANIKA OROKORRA
ZABALAGA TAILERRAK

Ama Kandida Etorbidea. DENAC Poligonoa, 203. Pabeloia
Telefonoa 30 01 69 ANDOAIN

Zizurkil

Hernandorenaren liburu fondoa jaioterrira

Guztira 800-1.000 liburu inguru eman ditu familiak

Teodoro Hernandorena Barandiaran zenaren familiak urteetan euskaltzale zizurkildarrak bildutako liburuetako batzuk eman dizkio Zizurkilgo Udalari. Aldi berean, Udalak bertso-laritzari buruzko hainbat liburu interesgarri eman dizkio Bertsolari Elkarteari. Iriarte Etxean jarriko dute liburu fondoa. Egun hauetan ari dira egokitze lanak bertan egiten. Bukatu ondoren interesatuek fondoan aurki ditzaketen liburuen berri ematea izango da beste lanetako bat.

Azkenengo 28 urteak Hondarrabian eman zituen Hernandorenak. Azaroan hil ondoren, emazteak etxea utzi egin behar zuela eta familiari urteetan bildutako liburu gehientsuenak Zizurkilgo Udalari ematea erabaki du. Kultur Etxeko arduraduna den Arantxa Zabala eta Jose Luis Larretxea artxibariak bertan eman dituzte egun batzuk liburuak zerrendatzen eta kaxetan sartzen Zizurkilera, hain zuzen ere Iriarte Etxera ekartzeko.

800-1.000 liburu inguru ekarri dituzte guztira. Gehientsuenak Hernandorena Hondarrabian bizi zenez ge-roztik erosi eta eskuratutako liburuak, hala ere iparraldean eman zituen urteetan lortutako asko ere badaude, hala nola mende hasierako batzuk. Euskal Herria dira argitalpen horien guztien gai nagusia: euskara, euskaldunak eta bere jatorria, historia eta bertso-laritzaren arlo nagusienak.

Garaiko argitalpen gehienak bildu zituen

Liburu guztiek ez daukate interes maila bera, asko liburutegian bertan aurki daitezkeen bildumak dira. Dena den, tarteka "pieza bereziak" edota "bitxikeriak" ba omen daude, eta batez ere, agortutako zenbait aldizkarien zenbaki solteak, gaur egun eskuratzea zailak izango liratekeenak. Iriarte Etxean katalogatze eta sailkatze lanak egiten ari dira egun hauetan, izan ere liburu horiek guztiak nolabait sailkatzea eta kokatzea ez da erraza izango. Fondoa egokitzeko aukeratu duten gela iri-kitzerako hilabete batzuk igaroko direla aurreratu digute. Aipatu bezala Bertsolari Elkarteak dagoeneko hartu ditu interes berezia zuten bertso-laritzari buruzko liburu batzuk.



Teodoro Hernandorena

Aurkitutako materiala aparteko bibliografia ez izan arren, ongi adierazten du Hernandorena zenaren izaera eta zeuzkan kezka nagusiak. Familiaren esanetan berak ez zuen inoiz gauza handirik idatzi, era guztietako argitalpenak, egunkari ebakinak eta abar bildu, goitik behera irakurri eta aztertzea izan zen bere zerginik nagusiena. Alegia, jakinmin handiko gizona zen, euskal-

tzalea eta abertzalea, ezagutu zutenen hitzetan, eta aberritik urrun luze bizi izan arren -Parisen 17 urte eman zituen- Euskal Herriarekiko lotura eta jakinmina ez zuen inoiz asetu, horren lekuko etengabe eskuratzen zituen argitalpenak.

“Beti izan zuen jakinmin handia”

Liburuez gain bere izaera ezagutzera ematen duen interes handiko 100 bat karpeta daude fondoan. Karpetak urte ezberdinetako egunkari ebakinez josita daude. Ebakinak sailkatzea zaila izan arren, bost gai nagusi aurki daitezke: Nafarroako historia; PNV-EAJ alderdian eman zen bereizketaren ondorengo EAREN sorrera eta bereziki PNV-EAJ Nafarroarekiko izan zuen jarrera -behin baino gehiagotan gaitzetsi zuen jarrera-; Hego Ameriketako zenbait herritako askatzaile izan zen Simon Bolivar bizkaitarraren bizitza eta pasadizuak; eta azkenik, pilota eta nola ez, bertsolaritza.

“Euzkadi” izeneko filmea egin zuen

Idatzien artean ez dute ia gutunik aurkitu. Bai ordea, bere hausnarketan idatzita dauden hainbat orri. Iturri ezberdinetatik edan eta inoiz asetu gabeko egarri eta jakinmin nabaria izan zuen bere azken egunak arte Hernandorenak. Aipatzekoa da, bestalde, Parisen bizitzen ari zela “Euzkadi” deituriko filme bat egin zuela, eta bertan bizi ziren euskaldunekin abesbatza bat ere osatu

zuela. Ezagutu zutenek diotenez genio biziko gizon ausarta izan zen beti.

Iparaldeko bertsolaritza

Iparaldean bertsolaritza zuzpertzeko egin zuen lanagatik mirestu dute askok Hernandorena. Bera han zela, bertsolariak taberna zuloetan baina ez ziren bertsoetan aritzen. Zizurkildarra bertsolaritzaren indar eta interesaz sinetsita, plazetara eramane zituen bertsolariak bertso saio eta lehiaketak antolatuz, eta merezi bezalako mailara igo. Harreman ugari izan zituen bertako bertsolariekin, izen batzuk aipatzearen Xalbador bera edota Mattin aipa daitezke.

Bizitza

Zizurkilen jaio zen Teodoro Hernandorena Barandiaran. Billabonako medikua izan zen bere aita izan zen bezalaxe. Billabonatar batekin ezkondu zen eta gerra hasi eta erbestaratu behar izan zuen arte Gipuzkoako Buru Batzarreko lehendakaria izan zen. Erbesteratuta, hamalau urte eman zituen Donibanen eta 17 Parisen. Iparaldean dentista lanetan jarraitu zuen. Zortzi seme alaba izan zituen, eta bere emazteak harro kontatzen duenez, guztiei erakutsi zien euskaraz. Duela 28 urte itzuli zen Hego Euskal Herrira, Hondarrabira hain zuzen ere. 96 urtekin hil zen 1994ko azaroan eta bertan ehortzi zuten.

Fondoko liburuak

Ezinezkoa zaigu Hernandorenaren fondoaren liburu guztien aipamena egitea, hala ere, aipatzekoak dira gorde zituen “Muga”, Deia aldizkariaren garai bateko gehigarriak; “Euzkadi-ak”; “Munibe”, Arantzadi Zientzia Elkartearen aldizkariak; Auspoa saileko liburuak; Itxaropenekoak; Etorrekoak eta beste hamaika.



1947.eko abuztuak 2 (zutik, ezkerretik hasita lehengoa T. Hernandorena)

Andoain


Squash talde berria

Gipuzkoako bigarren elkarte

Sortu berria da Kaskabeltza squash taldea. Bere zereginik nagusienak batetik, kirolaren ezaugarriak herritarren artean ezagutzera emanez, kirola egite-
ra animatzea da, bestetik, eskola haurren artean kirola bultzatzea, eta azkenik, kirolarien maila igotzeko txapelketak antolatzea. Besteak beste, kiroldegian squash pistak erabiltzeko indar-
rean zeuden arauak kendu, eta jendeari sarrera erraztea lortu dute.

gabe. Eta behin elkartu ondoren kirola bultzatzeko elkarte sortzea ideia ona izango litzatekeela pentsatu zuten. Dena den, squasha ez dago federazioari dagokionez oraindik oso ongi antolatuta; Andoaingo Gipuzkoako bigarren elkarte da, Irungoaren ondoren, nahiz eta gero eta jende gehiagok jokatzen duen. Kirol indibiduala da zentzu horretan oraindik.

Besteak beste, hauek dira taldekideek ezarri dituzten helburuak:



tuz, kirolaren ezaguera osoa bultzatu: heziketa teknikoa, gizabanakoa, arbitrajea, arauak eta abar.

“Squashari ‘San Benito’ asko jarri zaizkio”



Kaskabeltzako lehenengo kideak

Lehehenengo talde eragilea hamabosten bat lagunek osatu bazuten ere txapelketa baten ondoren, geroztik jende ugari eman du izena, eta gaur egun berrogeita hamar bazkide baino gehiago badira. Nork bere aldetik jokatzen omen zuen lehen, beti bikote berarekin, eta elkar ezagutu


heziketa arloan kirola bultzatzea, orokorrean inongo jaramonik egiten ez zaiola ikusten baitute. Emakumezkoen artean bereziki ere, kirola bultzatzeko beharra ikusi dute, gutxiengoa baita oraindik jokatzen duena. Eta gainera, squasharen agerpena berri samarra dela kontuan har-

squasha, batetik prestaketa fisiko egokia eskatzen duelako, eta bestetik, areto bereziak behar direlako eta horrek beti mugatzen du jarduna.

Prestaketa

Era berean, Xabierrek argi adierazi digu prestaketa fisiko ona behar dela kirola egiteko, litekeena da gai-

“Ezagupena beharrezkoa da” adierazi digu Xabier Lasa taldekideak, “izan ere squashari guztiz egiak ez diren ‘San Benito’ ugari ezarri zaizkio: batetik, jendeak beti pentsatu izan du goi mailako exekutibo estresatuentzako kirola dela -filmen eraginez-, eta bestetik, kirolak bihotzekoak eragiten dituela”. Goi mailako jendea dela eta ez dela, Xabierrek kirola herrikoiagoa bihur dadin nahi luke. Hala ere, Xabier berari iruditzen zaio beste kirol batzuekin alderatuz, gutxienez zatatizango dela beti



Areto txikian azkar ibili beharro dago

nerakoan bihotzekoak eta beste-lakoak izatea, "normalean beste kirolen bat egindakoak hasten dira squashen jokatzen". Palan edota pilotan ongi ibilitzea ez da nahikoa, squash gogorragoa da, areto itxi batean jokatzen da eta mugimendu gehiago eskatzen du. "Badira 'nola edo hala izerdia botatzea' beste helbururekin joaten ez direnak" azaldu digu Xabierrek, "normalean horiek ez dute asko irauten eta bi saio egin ondoren, axubetak lehertuta utzi egiten dute".

Jokalari zaletuen artean txapelketak eta torneoak antolatzen hasiak dira. Konpetibitatea baino gehiago,

kirola bera, adiskidetasuna, elkar ezagutzea eta beste balore batzuk bultzatu nahi dituztela argitu dute. Hala ere, txapelketak ezinbestekoak iruditzen zaizkie kirolarien maila igotzeko. Txapelketei dagokienez irekiko *open*-ak, mailaketaren sistemako txapelketak, egun jokatzen ari diren *ranking*-a eta bat-bateko neurketak antolatu nahi dituzte. Santa Krutz eta San Juan jaietarako ere txapelketa bereziren bat antolatu nahi dute.

Kiroldegiko pistak

Kiroldegian bi squash pista daude. Orain artean edozein ordutan joan, eta libre egonda ere ordaindu

egin beharra zegoen erabiltzeko. Kaskabeltzekoei iruditu zitzaizen kiroldegia zerbitzu publikoa izanik, eta gainera, kirola bultzatu nahi bazen, pistak libre egon bitartean behintzat, zerbitzua dohainik izan behar zuela. Kirol patronatuari proposamena egin ondoren onartu egin zaie, eta gaur egun ez dago squash pista ordaindu beharrik, libre baldin badago behintzat.

"Ziur aski, kirol minoritarioa izango da beti"

Squasharen jatorriaz

XIX. mendearan bukaeran sortu zen squash Ingalaterran. Britania Handiak joan den mendean eta honetan egin zituen konkista kolonialen bitartez beste herrialde batzuetara zabaldu zen kirola: AEB, Egipto, India, Pakistan eta abar. Hain zuzen ere, azkenengo hogeita hamar urteetan pakistaniarrak izan dira munduko txapeldunak. Era horretan, beste gauza asko iritsi diren bide beretik iritsi da guregana squash, eta gaur egun gure artean edozein herritarrek jokatzen du, hala ere kontatu digutenez, aipaturiko herrialde askotan squashak badu oraindik nolabaiteko kutsu elitista, batez ere klub pribatuetan jokatzen delako gehienbat.

Andoain

Joxe Mari Iturzaetaren heriotzaren urteurrena



Orain dela urtebete otsailaren 29an hil zen Joxe Mari Iturzaeta palista andoaindarra, askoren esanetan "pala munduko izarra".

"*Etxe bontan jaio zan hamarkada hontako pelotari onena*" dio Sorabillako Elizondo etxean itsatsita dagoen plakan. Era horretan gorde du Joxe Mari zenaren oroimena Andoain herriak.

MENDI IBILALDIAK

ANDOAINGO EUSKALDUNA MENDIZALE ELKARTEA:

Martxoak 19: Ganuza-Santiago de Likiz, Arana (1.255 metro) eta Gastiain.

BILLABONAKO AZKARDI MENDIZALE ELKARTEA:

Martxoak 26: Aizkardi XXVII ibilaldi neurtua.

ASTEASU:

Martxoak 19:

Joseba Elizegiren aldeko ikuskizunak Orion ikus-tetera joateko ibilaldia: Asteasu-Pagoeta- Orio.

Billabona

Jota-Kia Jota-Utzaren aurka

Garaiko gazteen burutazioa

Billabonan gutxi gogoratuko dute Jota-Kia eta Jota-Utzaren arteko futbol partidua. Izan ere, 1942ko ekainean Andoaingo Etxeberrieta futbol zelaian izandako lehia aspaldikoa izateaz gain, ez zuen egun artako komunikabideetan aparteko oihartzunik izan, bai ordea herriko gaztedian, herriko gazte gehienek hartu baitzuten bertan parte. Ziur aski, Andoaainera joateko idatzian aipatzen diren tren bereziak ez zituzten antolatuko, hala ere, lekukoek aipatzen dutenez, jende ugari bildu zuen ikuskizun hark. Ariztegi inprimategian dago hemen duzuen orri hau inprimatuta, egun haietan herriko hainbat eta hainbat iragarki inprimatzen ziren etxe berean.

Pedro Zufiriak billabonatarrek zeukan orri hau paperen artean gordeta eta halako batean aurkitu duenean egun haietako oroitzapenak etorri zaizkio gogora. Ez du partiduan egon zen ala ez gogoratzen, dena den, ia ziurra da bertan egongo zela, "herriko gazte gehientsuenak bertan zeuden eta" esan digu.

Urte hartan hiru zaletasun omen zeuzkaten Billabonan gazteek: tabernetan ibiltzea, errebotean jokatzeko eta futboleko aritzea. Tabernetan ospetsuenak Izkiña, aldameneko Sorondo eta plaza ondoko "periodista" ziren. Idatziak ematen du aditza gazteak "sagardozaleen" eta "tasquerilen" (tasketan ibiltzea gustatzen zitzaizkien) artean zeudela banatuta, hala ere, eta esan digutenez guztiak ziren sagardozale eta ardozaleak eta batzuetan nahiz besteetan gustora ibiltzen ziren. Errebotea berriz, denbora pasa atsegina izan ohi zen 1936ko gerraren ondoren giroa nabarmen jaitsi baldin bazen ere. Futbola berriz guztiak zuten oso go-

goko. Arazoa berriz, futbol zelairik ez edukitzea zen. 1934 urte inguruan desagertu zen Billabonan ordura arte izan zen futbol zelaia, Tolosako bigarren kilometro ingurura zegoen Larreko zelaia. Kendu ondoren, jokatu ezin, eta futbolaren grina Donostiako Real Sociedad eta Irungo Real Unionen arteko partiduen jarraipena egunkari eta irrati bitartez eginez adierazten zuten gazteek, ordura arte bezala.

Kalea eta karretera

Jakina garai hartan Billabona ez zen gaur egun dena, orduan kale nagusia eta ia bakarra egun Kale Nagusia deitzen dena zen eta karretera berriz Kale berria. Karretera inguruan baratzak ziren orduan nagusi eta Pedrok esan digunez, gazteen artean bereizketa handirik ez bazegoen ere, neurketa bi aldean artean egitea

bururatu zitzaien.

Jokalariei dagokienez, lehenengo aldia eta bigarrenetan irten zirenen artean herriko ia gaztedia osoa bertan zegoela jakin dugu, herriko seme ezagunak guztiak ere. Epaila eta marrazainak ere bertakoak ziren. Herriko "señoritoa" nor zen ordea, ez dugu jakiterik izan.

Lekukoek gogoratzen dutenez Kale Berrikoek, alegia Jota-Kiakoek irabazi omen zuten partidua, dena den ez omen da gauza ziurra. Pedrori galdetu diogu lehiaren ondoren bi taldeek jokatzeko eta euren indarrak neurtzeko jarraitu al zuten. Ezetz esan digu, "dibertitzeko momentuko burutazioa eta txantxa baino ez zen izan". Ezagun dute bai, Billabonako gazteek herrian giroa sortzeko olinpiadak eta kirol saioak antolatzen iaioak direla.

Campo de ECHEVARRIETA - Andoaín
Domingo, 3 de Junio
a las 5 de la tarde

1.942

GRAN PARTIDO DE FUTBOL

entre los siguientes equipos de Villabona

JOTA-KIA contra JOTA-UTZ

que representa a los de la calle
formará el siguiente conjunto
cuajado de «ases»:

J. Ezquolaga
I. Garmendia - "Praskumari"
Rubus - Roque - Melosa
Zapirain - Zubiri - Blos - Florenza - M. Ezquolaga



que representa a los de la carretera, alineará el siguiente «once» de «magos» del balón:

Higuitxo
Jose Lino - Chomin
Juanito - L. López - Julián
Salzar - Andrés - Huelburo - Gárate - Roberto

En el segundo tiempo saltarán al campo los nuevos valores, tales como Inaurita, «PATRICIO», Mikel, Cardoso, Gogorza, Prasku, etc., para reemplazar a algunos de los anteriores que hayan sufrido algún «ligero» desgaste.

Arbitro del encuentro: el colegiado Villabonatarra NICOLAS, ayudado por los jueces de línea: JULITO y LAZARO.

El saque de honor lo hará un bello «señorito» de la localidad.

En vista de lo trascendental de este encuentro, que ha de proclamar la supremacía del balón redondo, en los ambientes «sagardozales» y «tasqueriles» de la villa, la Directiva del JOTA-UTZ, ha recluido a sus jugadores en Bedayo, a fin de tenerlos en debida forma física. Asimismo la Directiva del JOTA-KIA, mandará desde el lunes próximo a descansar todos sus jugadores a Mondragón.


Se están gestionando trenes especiales y otros medios de locomoción, para que la inmensa muchedumbre de aficionados, puedan presenciar tan gran encuentro.

Asteasu

Garmendi tailerra burdina eraldatzen

“Oxikorte” sistema erabiltzen dute burdina mozteko

Tradizioz burdingintza izan da Euskal Herrian industria sektore-rik garrantzitsuenetako bat. Burdinaz eginda daude egunero erabiltzen ditugun hainbat eta hainbat gai, dena den burdinak azken itxura hartu aurretik eraldapen prozesu luzea izan ohi du. Hain zuzen ere, Asteasun dagoen Garmendi tailerrak burdina xafra forman hartu eta pieza ezberdinak egiten ditu. “Oxikorte” deituriko sistema erabiltzen dute burdina mozteko.



Burdina sopletez mozten dute

“Oxikortea” burdina sopletez mozteko erari esaten zaio. Tailerreko teknikoak den Axier Arrietak faxez jaso ohi du normalean bezeroengandik zein eratako pieza nahi duen, zein neurritakoa eta ze kopuru, “izan ere burdin xaflek lodiera ezberdina izan dezakete” argitu digu Axierrek. “hiru milimetrotik hasi eta hirurehun milometro bitarteko xaflek moz ditzakegu guk”. Ondoren neurriak zehatz-mehatz hartuz ordenadorez marrazten da pieza “autocad” programa erabiliz, alegia tailerrean dauden makinek automatikoki, kontrol numerikoz, erantzuten diete ordenadoreak emandako aginduei, sopleteak nondik nora moztu behar duen esaten die. Sopletearen suaz mozten da pieza. Era honetan pieza zehatz-mehatz mozten du sopleteak. Ondoren esmerilatu egiten dituzte piezak ertzak kentzeko. Hiru makina dauzkate tailerrean bakoitzak sei soplete dituela. Burdina Bilbo eta Asturiasetik ekartzen dute.

Axierrek kontatu digunez, gaur egun burdina mozteko beste sistema batzuk ere badira: laserra edo uraren presioa esate baterako. Biak dira sopletea baino askoz ere zehatzagoak, baina baita garestiagoak ere. Urak 2.500 kiloko presioz eta hondarrez aise mozten omen du burdina. Euskal Herrian laserra gaur egun Gasteiz-

ko enpresa batzuetan baino ez dute erabiltzen, eta gainera 15 milimetro baino lodiera handiago duten xaflek ezin ditu moztu. Enpresa ertain eta txiki gehienetan sopleteak erabiltzen dituzte.

Garmendi tailerraren bezero guztiak gipuzkoarrak dira: bezero asko eta pieza ezberdin ugariarekin egiten dute lan. Inguruko galdarategiak edota tailer mekanizatu txikiak dira euren bezero nagusienak. Lan azkar egin behar izaten dute “susto batean ibili ohi gara” dio Axierrek. Lantegiak ez dute euren lanean burdina biltzen, aldiko ekoizten dituzten piezak oso ezberdinak izan ohi direlako, horregatik eskatu ahala bete behar izaten dituzte eskariak.

Hiru errementari

Gaur egun hamar lagunek egiten dute lan tailerrean, lau administrazio eta teknika lanetan eta tailerrean gainerakoan. Tailerra orain bost urte dago behe bailara inguruan, baina Garmendi izena ez da gaurkoa, orain dela 25 urte Amasako Garmendi baserrian hiru errementarik ekin zioten egitasmoari. Garmenditarrek burdina lantzen jarraitu zuten, baina gaur egun arte aldaketa ugari egin dituzte euren jardunean. Gaur egun, hala ere, senide arteko enpresa izaten jarraitzen du.

Burdingintzaren krisia pil-pilean egon da orain dela ez asko gure artean, Axierrek berak aitortu digu 1993. urte oso txarra izan zela, baina geroztik gauzek hobera egin omen dute. Burdinaren etorkizunaz galde-tu diogunean, gorakada hau zenbaterainokoa izango ote den ez dakie-la esan digu, dena den, gaur egun zaila da burdina baino gai gogor eta merkeagoa aurkitzea, beraz, nola edo hala, burdinak etorkizunik izango duela pentsatzen du.

Garmendi tailer txikia da, hala ere gaur egun teknikak eskaintzen dituen abantaila asko dituzte: ordenadorez orain lau urte hasi ziren lanean; lehen eskuz egiten zituzten marrazkiak, eta zalantzarik gabe, azken emaitza hobea dela nabaritzen da. Tailerreko sabaitik zintzilak dauden bost tona zama altxa dezaketen iman handiak ere badauzkate, eta horrek ere langileen lana arindu egin du, garai bateko gerriko minak gutxituz. Kostatu omen zitzaion langileei maskarilak jarrita lan egiten hastea. Urtero egiten dituzte errebisioak eta behin eta berriz beharrezkoak direla errepikatu ondoren jabetu omen dira. Gaur egun maskarila kendu gabe egiten dute lan “bizitza osoa burdin hauts artean eman behar duenak derrigorrez jantzi behar du maskarila, bere birikek egunen batean eskertuko dute”.

Andoaindarrak gutxi kexatzen gara oraindik

1994. urtea amaitu eta 1995ari hasiera eman orduko ekin zaie urteko balantzeei, hain zuzen ere Andoaingo Kontsumitzailearen Bulegoak ere bere balantzea egin du. Bertan urtean zehar izan diren kontsulta eta kexen berri eman dute. 38 kontsulta izan dira urte osoan zehar eta 5 kexa baino ez.

Kontsultak eta kexak hilabete bakarrean egin direla kontuan hartuz, urte osoan zehar ia batere ez garelako kexatu iruditzen zait niri. 15.000 lagunek osatzen duten herri batean Bulegora 38 lagun baino ez hurbildu izanak bi gauza esan nahi ditu nire ustez: bata, erosten dugun guztia gure gustokoa eta batere akatsik gabea dela, eta bi, erosotasunez edo ohitura faltagatik kontsumitzaileen kexak jasotzeko sortu zen erakunde honetara joateko ohiturarik ez daukagula.

Izan ere, guztiok sentitu gara inoiz engainatu samarrak erositako gaiak, normalean publizitatea sinetsita, uste genituen ezaugarri eta kualitateak ez zeuzkala ikustean. Normalean arazoa oso handia ez bada, eta tartean diru kopuru handia jarri ez badugu, ez daukagu horrelako erakundeetara jotzeko ohiturarik. Horrelakoetan hitzez baino ez gara kexatzen. Arazoa oso larria baldin bada, abokatuengana jo ohi dugu, eta diru kopuru handiak ordainduta, eta luze eman ondoren, konpontzen dituzte auziak.

Bulegoko arduradunak adierazi digunez kexa gehienak etxebizitzaren erosketara eta alokairuekin egon dira erlazionatuta. Alegia, horrelako arazoan aurrean jotzen dugu Bulegora, eta aldiz, konponbide errezagoa daukaten arazo xumeagoak edukita, ez dugu bertara jotzen.

Kexei dagokienez oinetako etxe, aseguru etxe, tindategi eta lan mundutik sortutakoak izan dira. Dena den, beste txikikeria batzuegatik kexatzeko gai den herri honetarako oso kupuru txikia dela iruditzen zait.

Era honetan, gai batek akatsik txikiena daukala, ez ditut nire bizilagunak Kontsumitzailearen Bulegora bultzatu nahi, izan ere askotan arazoak gure ezjakituriari eragiten ditu, edota egungo tresneria modernoaren mekanismo zailek.

Dena den, inork ezin du ukatu inoiz edo behin akatsen bat zeukan produkturen bat erosi ez duenik: arropa, oinetako eta elektragailuen kasuetan batez ere. Bestalde, erosgai batek akatsen bat izanez gero, lehen ohitura handiagoa zegoen dendara kexatzera joateko, orain baino.

Askok ez dute Andoain oraindik Kontsumo Bulegoa ezagutzen. Nik neuk orain dela hilabete batzuk jakin nuen non zegoen. Banekien existitzen zela, baina ez non zegoen.

Beharbada, hori da erreklamazio eskasaren arrazoi nagusienetakoa. Zerbaite ezagutzen ez duzunean, ez duzu horri buruz hitz egiten eta arazorik ere ez dizu eragiten, baina gero ezagutzen duzunean ohizko gauza arrunta bilakatzen da.

Agian, Andoaingo dendek ez dute akatsak dituzten gaiak saltzen, baina hori nahiko zaila da sinestea.

Dena dela, eta bukatzeko, bulego honek egiten duen lan garrantzitsua azpimarratu nahiko nuke, egunez egun datuak bilduz eta artxi-boak osatuz.

Eta langile talde bat hortxe, gure zerbitzura daukagunez, ea 1995. urtean gehiago baliatzen garen Kontsumitzailearen Bulegoaz.

Fatima Aparicio.
DEIAko Andoaingo berriematea



ARGITALPENAK

Literatura erotikoa "MADAME EDWARDA BEGIAREN ISTORIA HILDAKOA"

GEORGES BATAILLE

Itzulpena:

Juan Inazio Garmendia

ELKAR



"Irri badagizu, beldurrez zaudelako da", izan ere, eta Georges Bataille idazle eta filosofo frantsesak dioenez, erotismo gaia erabiltzean pertsona gehienongan irria sortzen duen larrimina nabari delako da. Liburu batean bildutako hiru kontaketa gordin hauek mugarik gabeko barne esperientzia lizun baten ondorioa dira.

Batailleren liburu guztiak barreneko esperientzia sakonetik idatzita daude; extasia, izakiaren biluztasunaren kontaktua, barrea, erotismoa, mozkorra, poesia, festa basatia eta sakrifizioa dira bere poema, ipuin eta saiakera liburuetako gai nabarmenetakoak.

"Anus solaire" (1927), "Histoire de l'oeil" (1928), "Alleluiah" (1934) eta aipaturiko ipuin bilduman erotismo bortitza nabarmentzen dira. Lanek pentsamendu mistikoa agertarazten dute, absolutua bilatzera eraman duen heriotzarekiko obesio baten bidea. Amodioaren arlo honetan azken muturreraino jo nahi zuen frantsesak atsegina nazkarekin bat egiterainoko moduan.

Eme Jesus!

Ramonen ezkerreko hegoari ateratzen diot luma. Emakumeak gure gizartean duen lekua beste kultura patriarkalagoetan duena baino inportanteagoa da. Gaztelanian aitagoa, gutziz nabaria da, euskarano baino askoz ugariagoa. Euskarano emearen lekua begi bistakoa dugu. Ez du gaztelaniaz bezala, *padres, hermanos, tios...* artasun hutsaren plurala indartzen, baizik eta ar-emeak batera aipatzen: *aita-amak, gurasoak, neba-arrebak, edo senideak, izeba-osabak*. Zer pentsatua ematen dute *aitaginarreba* edo *amaginarreba* hitzek ere, azken *arrebak* horren emetasuna dela eta.

Etxekoandrea eta Etxenagusia maila bereko dira, baina haurrak kokortu arte amari eta senide emeei atxekia hazten da, haren zuzenbidea eta heziketa amari dagozkio. Emaztea (eme+gaztea) gehiago da bere seme-alaben ama, senarraren (sen+arraren) ezkontide baino. Ama/haur lokarria askoz ere sakonagoa baita senar/emazte lokarria baino. Ama ez da maitasun objektu hutsa, haurraren izaera finkatzailerik funtsezkoena baizik.

Horrez gainera euskarak badu ahaidekotasuna adierazteko erruz baliatzen duen *-ba* edo *-aba* atzizkia, eta nere iduritua da, ez ote duen funtsean *ama* hitzaren aztarna gordetzen atzizki horrek. Batik bat haur-kantetan

ageri den *obaba* edo *ababa* dela eta. Joseba Sarrionandiak badu artikulu interesgarria, *Ni ez naiz bemengoa* liburuan *Oba obabatxua* izeneko.

Ez dakit zergatik baina, haurrak eta amak batik bat (eta ahaideko edozeinek) lehenbizikotz elkarri hitzegiteko erabiltzen duten hitz misteriosu horren aztarnak susmatzen ditut *osaba, izeba, alaba, iloba, loba* eta abarretan. Ama baizik esan nahi ez duen *(a)ba* horrek arautzen duela nago

euskaldunen odolezko lokarria. Fonologia ez dakit askorik, baina badira zer pentsatua ematen duten hitzak: *ababa-amama; ugazaba-ugazama*. Ai ama! Munduan ez da bere buruaz ederretsia den hura baino jende engaina errazagorik. Emaiozu hitz bat, eta sendatuko da.

PATZIKU PERURENA
(HITZ APURRA

Diario Vasco. Otsailak 9)

William Douglass, Reno-Nevada Unibertsitateko Basque Studies Program-eko koordinatzailea.

Euskarazko eskolak eskaintzen ditu Programak Renoko Unibertsitatean. Ikasteko interesa ba al dago?

Hizkuntzarekiko interesa txikia da hemen, bertako euskaldunen artean ere. Gure ikastaroeke zaletu batzuk dituzte, bederatzihamar bat. Nik uste EEBBetako Mendebaldean hizkuntza kinkan dagoela; euskal familiek ere ez dute ahalegin handia egin euskarari eusteko. Arrantxo hizkuntza euskara zen garai batean. Gehiago hitz egiten zen euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez baino. Gaur egun artzainaren garrantzia askoz txikiagoa da eta ardiaren industriak ere ez du lehen zuen indarra hemengo ekonomian. Euskal artzainak historia dira, eta horiek, euskal hotelak.

Euskarak ere balio praktikoa galdu du eta lehen baino azkarrago ari da galtzen. Orain, intelektualek dute interesa. Euskal jatorrizko unibertsitateak behin ere baino gahiago dira egun. Karmleo Urzaren Kontsorzioarekin ere zenbait ikasle Euskal Herrira joaten da.

Bestalde, hizkuntzalariek ditugu; hizkuntza preindoeuroparra delako ikasten dutenak. Interes intelektuala handiagoa da, gaur egun, duela hogeita zazpi urte baino, nahiz eta txikiago izan euskaldunen seme-alabengan.

(MIEL ANGEL ELUSTONDO. Argia. Otsailak 5)

SAHATSA

**BELARDENDA ETA DIETETIKA ZENTRUA
KONSULTA NATURISTA**

Termin kalea, 16 - ☎ 69 28 83 - BILLABONA

HONTZA BIDEO TALDEA

BIDEO ERREPORTAIK



EZKONTZAK
JAUNARTZEAK
BATAIOAK
OMENALDIK
JAIK
ETA ABAR

☎ 59 33 05
ANDOAIN

EUSKALDUNA



Edaritegia

Bilar-jokorako aretorik
aproposena!!

Txermin kalea, 4 - ☎ 69 36 47 BILLABONA

MIRARI
ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2

☎ 590162

ANDOAIN



ER. NiOBIDE
JUAN CARLOS ARICETA

ZURGINDEGIA

-Erreformak oro har

-Neurrira egindako armairuak

Agaraitz auzoa, z/g - ☎ eta Faxe 69 26 75
BILLABONA

JAIOTZAK



ANDOAIN

- Kevin Fondón García. Urtarrilak 25.
- Maider Urkola Gorostegi. Urtarrilak 26.
- Irati Díez Iturbe. Urtarrilak 29.
- Xabat Petrikorena Uranga. Urtarrilak 29.
- Eñaut Velado Contreras. Urtarrilak 30.
- Alba Munillo Agudo. Urtarrilak 31.
- Izorne Tena Ugarte. Otsailak 3.

BILLABONA

- Leire Bernaras Mariño. Urtarrilak 20.
- Joana Sánchez Epelde. Urtarrilak 23.
- Jon Andoni Goenaga Beldarrain. Urtarrilak 23.
- Oihana Uranga Mujika. Urtarrilak 24.
- Gorka Rico Ugartemendia. Urtarrilak 28.
- Elena Rodríguez Gómez. Urtarrilak 31.
- Ioritz Elizaran Simón. Otsailak 4.
- Tamara Urrutia Etxeberria. Otsailak 7.
- Ianire Jauregi Ezama. Otsailak 7.

ZIZURKIL

- Lara Artigües Tulladena. Urtarrilak 20.

EZKONTZAK



ANDOAIN

- Alfonso Legorburu eta Maria Eloisa Martínez. Urtarrilak 20.
- Jose Luis Larrarte eta Lurdes Artano Bereau. Otsailak 3.
- Iñaki Errazkin eta Mari Lurdes Maritxelar. Otsailak 11.

GOIAN-BEGO

ANDOAIN

- Maria Aranzazu Azpeitia Ormazabal. Urtarrilak 19.
- Francisco Hernández Vila. Urtarrilak 22.
- Felisa Maiztegi Agirre. Otsailak 7.
- Jose Maria Gorostidi Barrutia. Otsailak 10.

ASTEASU

- Maria Dominga Gaztañaga Esnaola. Urtarrilak 24.

BILLABONA

- Generosa Artolazabal Izagirre. Urtarrilak 16.
- Aurelio Castillo Ginea. Urtarrilak 21.
- Maria Legorburu Zabaleta. Urtarrilak 25.
- Maria Josefa Zipitria Otegi. Otsailak 7.
- Alfonsa Leturiondo Egia. Otsailak 9.


ZIZURKIL

- Antonio Mendizabal Alberdi. Urtarrilak 16.

SUKALDE TXOKOAN

Espinaka eta ganba hojaldrea

Juan Jose Usarraga
BENTA jatetxea
Aduna



Osagaiak:

- 500 gramo hojaldrea
- 125 gramo espinaka
- 75 gramo ganba txiki
- 6 langostino
- 25 gramo urdaiazpiko txikitu
- Litro erdi esnegain

- 1- Hojaldrea zabaldu eta tartaleta edo saski-txo moldeetan labera sartu 15 edo 20 minutu 175 gradutara
- 2- Bitartean espinakak egosi ura, gatza eta olio pixka batekin.
- 3- Zartagin batean urdaiazpikoa, espinakak eta esnegaina egosten jarri ordu laurdenez su txikian.
- 4- Egosi ondoren hori guztia tartaleta edo saskitxoetan jarri.
- 5- Apaintzeko langostinoak egosi eta gainean jarri zuritu eta gero.



Urrezko ezteiak Asteasun

Benito Aierza Mendizabal eta **Kristina Arruti Lizaso** Asteasuko San Pedro parrokian ezkondu ziren otsailaren 10ean, orain dela 50 urte ihauteri bezperan. Arratsalde hartan bertan joan ziren Donostiara eztei eguneko argazkia egitera. Biharamunean Tolosako ihauterietara joanez egin zuten eztei bidaia. Zorionak!

SALEROSKETAK

ZIZURKIL

Musika bateria salgai prezio onean. ☎ 65 37 58. 13.00-19.00 deitu.

ALOKAIRUAK

ANDOAIN

Andoainen pisu bat hartuko genuke alokairuan. ☎ 65 99 94. Deitu 9.00- 13.00.

ZIZURKIL

Pisu bat daukat alokatzeko moduan. ☎ 69 17 30

LANA

ANDOAIN

Arratsaldetan etxeko lanak egin edo umeak zaintzen lan egingo nuke. ☎ 88 30 42

IKASKETAK

ANDOAIN

Magisteritza lizentziatuak OHoko klase bereziak emango lituzke euskaraz nahiz erdaraz. Orduko bi ikasle hartuko lituzke gehienez. ☎ 69 09 11

Marrazki tekniko klase bereziak: geometria deskriptiboa, OHO eta UBI maila eta matematika. ☎ 59 06 40

IKASTAROAK


ANDOAIN

Sukaldaritza makrobiotiko ikastaroa. Bizimodu osasuntsua gogoko baldin badaukazu, sukaldetik hastea funtsezkoa da. ☎ 59 12 91. 12.00-15.00 deitu. Edurne. La Salle etorbidea 5, 4-B.

BETERRI: Ezer saldu edo eskaini nahi izango bazenu, ez zalantzarik izan, hauxe duzu zure txokoa. Eman iezaguzu informazio zehatz eta osoa, hartara, interesatua jakinaren gainean izango da. Bestalde, ez ahaztu! Inorekin harremanetan jarri nahi baduzu, hau duzu biderik egokiena.



KALE BERRIA, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49



AUKERA ZABALA
KIROL ARTIKULUETAN

JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN



Ezkontza, Jaunartze, e.a. en erreportaiak.
Lan Industrialak



Jose Ignacio Unanue
Juan Bta. Erro 1 - ☎ 59 43 32
20.140 ANDOAIN



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL
SUKALDARITZA ETA ETXKO POSTREAK
Errementari, 1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU



PINTXO EDERRAK !!
KALE NAGUSIA, 16 - ANDOAIN

Zenbat zehaztaperen

Ez dagokidan protagonismoa hartzea dela iruditzen zaidan arren, orain bi ale Aiurri-n plazaratutako iriztiaren gainean bi zehaztaperen egin nahi nituzke, uste baitut edota nahi nuena ez nuela argi adierazi, edota gaizki ulertua izan naizela.

Objetibotasuna eta beste hainbat tasun lau haizetara entzun arren, jakina da gai politikoak ukitzen direnean, kazetarien klasea nor estrategi politiko zehatzen morroi dela. Are gehiago, segimendu minimoa zintzotasunez eginez gero, egungo konstatazioa da komunikabideen munduan, besteen gaintetik, diskurtso dikotomizale bat dela nagusi, alegia, birtute demokratikak dituzten eta ez dituztenen artean marra ipintzen duena; Legitimoa izan ala ez izan, joera hori ahalegin intelektual handirik gabe edonork begizta dezakeena da.

Hortaz gero, helduak gara nork bere ondorioak atera ditzan. Neri dagokidanez, edozein gertakizunetaz ahalik eta irizpiderik kontrastatuena izateko, errealitate beraren interpretazio anitzak entzutea irriki izan dut betidanik. Gogomin horretxek, beste eskarmentuen artean, zera itsatsi dit: badakit alde bateko bertsioa entzuteko ez dudala berebiziko eginalik egin beharko. Ordea, maiz eta zoritxarrez ere, badakit bigarren ber-

tsiorik eskuratzeko, zera, alferrik izango dela zerbitzu publikoak behar luketen komunikabideetara joaterik. Beste erremediorik ez: edota kioskora joanik patrikera arindu, edota gertakizunen lekura hurbildu.

Testuinguru lokalago batera jaitziz ere, Andoaingo Udal-Batzar polemikoen kasuan, banekien horixe gerta zitekeela: errealitateak esaten zidan etxean geratuz gero, Andoaingo kronikalarietariko batenatik soilik edan nezakeela informazioa. Beste bertsioa eman ziezadakeen kazetaria ordea, instituzio publikoen publizitate banaketa ekitatiboari esker, langabezian zegoela.

Bestalde, bi batzarretan intolerantziaren arrasto argiak usaitu nituen, bietan, eta nere sentsazio lazarri hori eredutzat hartuta, nere iritzia helarazi nahi izan nuen, besterik ez. Hots, gure gizarte politizatu honetan intolerantzi jokoerak gutako nornahirengan nabari direla, inor gutxi libratzen dela -neu barne- ipurdia belztuta edukizetik. Esate eta egitearen artean dagoen alde hipokritak itzal luzea baitauka; izan ere, eguneroko praktikaren obserbazioak diskurtso hori hipokrita samarra dela bistartzen du. Ez letorkiguke gaizki, beraz, autokritikaren dosirik gu guztioi.

Xabier Lasa Bergara

Amets euskaldunak

Atzokoan ere, betiko leloari heldu genion azkenean: euskarak Euskal Herrian jasaten duen egoera txarra, hizkuntza espainola gure bazterrak zapaltzen... Askotan bezala, ez nintzen oso goxo sartu ohera, baina azkenean hartu nuen lo.

Gaur goizean jaikitzean ordea, eguzkiak irribarre egin dit. Nire begi erdi hertsia berehala ireki zaizkit gaileta kaxa ikusi dudanean, "Goxo-goxo". Noiztik erosten ditugu gaileta hauek? Gero trenera joan naiz: "Joan -etorria Donostia-Andoain, 185 pezeta". Trenean nindoala: "Egunon! Zure txartela, mesedez?". Ondoren ondokoari galdetu diot: "¿Tiene hora?" eta "ez dut ulertzen, barkatu, atzerritarra al zara? Badakizu hemen Euskal Herrian...", izugarriko erretolika bota dit eta hitzik gabe utzi nau. Ezin izan diot erantzun. Trenetik jaisterakoan hurbilen gelditzen zaidan kioskora joan naiz egunkaria erostera, ohizko egunkari guztiak euskara hutsean aurkitu ditut. Pare bat masaileko eman dizkiot neure buruari esnatuta nengoela ziurtatzeko.

Klaseko lagunak komentatu didate atzo gaueko telebistako programazioa: ETB-2ko albistegia, pelikula eta mahai-ingurua euskaraz izan omen ziren eta Tele-5k, Katalunian egiten duen bezala, euskaraz subtitulatutako pelikula pasatu omen zuen.

A ze eguna! Euskal Herrian Euskaraz taldea ez da jada beharrezkoa herri honetan. Ze arraiio! Euskaraz ere ames daiteke, ezta?

Andoaingo Euskal Herrian Euskaraz taldea



KARROZERIAK
LAGUNAK^S

TXAPA ETA PINTURA
EGA ZERBITZU OFIZIALA
FURGOI ISOTERMIKOAK
HOZKAILUAK

SORABILA AUZOA - 53. POLIGONOA - ☎ 59 44 48 - ANDOAIN

LIBURUDENDA



LIBURU AUKERA
EDERRA PRESTATU
DUGU ZURETZAT

Agustin de Leitz 27 ANDOAIN % 59 16 03



JOSEBA

Altzariak

KALETXIKI, 6 ANDOAIN
FAX ETA TELF. 59 07 61

Igeltsaritza

M. USABIAGA

Leku eder Etxea - Elbarrena Auzoa
☎ 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (GIPUZKOA)

“Herri txiroei” zuzendutako ongizate programak

“Herri txiroei” zuzendutako programak nolakoak diren agertuko dut, lehenik, hezitzaile naizen alde tik eta eurekin lanean arituz dauka dan ikuspegitik.

Programa horiek bi atal dauzka te: etxebizitzak eta dirulaguntzak, alde batetik, eta hezitzaileek dar matzaten programa familiarrak, bes tetik. Programa hauetan etxeko an tolaketa, osasun arloa, lanbidea, di namika familiarra, administrazio ekonomia arloa, gizarte ingurunea ren egokipena eta beste gai batzuk lantzen dira. Programa familiarraren egituraketa osatzea eta beraiek au rrera eramatea da gure lana. Horre tarako familietan “sartzen” gara egu nero edo ia egunero, eta elkar eza gutu ondoren, elkarrekin ikusten ditugu beharrak eta familia bakoitzaren programa zehazten da.

Gure lana zaila izaten da jarrera aldaketak lantzen direlako. Gizarte honek duen sistemak behartsuak eskatzera behartzen ditu pertsonen duintasuna suntsituz eta instituzio ekiko izugarriko dependentzia sor tuz. Esan ohi den bezala, arraia ematen zaie arrantzan erakutsi gabe.

Horretan datza, hain zuzen ere, gure lana, arrantzan irakaste horretan. Baina horretarako baliabide batzuk beharrezkoak dira: aipaturiko adibidean kainabera beharrezkoa da, baina horrez gain lana, etxebizitza eta dirulaguntzak behar dira. Lehenengo baliabidea lortzea zaila denez, zailtasun gutxiago duenera jotzen da, normalean. Dirua baliabide bat da, eta argia, errentak doanekoak ez baitira izaten.

Horixe da ikasketa prozesuaren lehenengo puntua, izan ere gauzak ez dira inon doan lortzen. Behar dituzten gauzak erosteko dirua irabaziz berreskuratuko dute duintasuna eta lortuko dute erakundeekiko independentzia familia hauek.

Programa hauek hiru urteko iraupena izaten dute eta helburua lehen aipaturikoa da, izan ere hiru urte horiek igarota baliabide horiek guztiak desagertu egingo dira eta beraiek lortu beharko dituzte. Arrazoi horregatik da lana hain garrantzitsua. Baina gaur egun oso zaila da hori guztiontzat, beraz, denbora igarotzen utzi beharko dugu!

Diskriminazio positiboa eta negatiboa

Hala ere, programa hauei buruzko era guztietako iritzia k daude: Ongi ikusten dutenak daude, oinarrizko baliabideetat etxebizitza eta dirulaguntzak hartuz. Beste batzuek berriz, ez dituzte hain ongi ikusten, etxebizitzei begiraturuz, batez ere. Horrenbeste jende dago gure artean etxebizitzarik gabe, ezen diskriminazio positibotzat hartzen baitute etxebizitza lortzea, gainerako herri tarrentzat diskriminazio negatiboa bihurtzen delarik. Hauezag gain, badaude, horrelako programak “kale garbiketatzat” hartzen dituztenak, erakundeek zerbait egiten ari direla adierazi nahian edo, baina azken finean arazoari “txaplata” jar tzea baino ez omen da.



Nire ustez, argi izan behar dena zera da, alegia, zein kontzeptupean ematen edo uzten zaizkien etxebizitzak eta dirulaguntza. Eta edozein programa ezarri baino lehen, pertsona hauek bizi izan duten egoera eta bakoitzaren berezitasunak eza gutu behar dira. Era horretan ez da kultura baten asimilazioa gertatuko eta integrazioa lortuko da, dauzkaten arazoak ez baitira kulturalak, bizi egoera eta baldintza batzuen ondorioa baizik. Eta ezagutuz gero, euren ezaugarri kulturalak guztiontzat izango dira onuragarriak eta aberasgarriak.


Aipaturiko baliabide guzti horiek lortzea zaila zaie batzuetan pertsona horiei bakarrik arituz gero, izan ere, diru arazoez gain, arrazakeria arazoak ere badauzkagu oraindik gizartean. Beraz, diskriminazio positiboa egitea beharrezkoa izan ohi da. Beste herritarrek jarrera hori euren aurkako diskriminaziotzat hartzen dutenean izaten dira arazoak. Eta, zoritxarrez, batzuetan horrela ikustarazten da, haserreek konpobide zuzenetara eramaten ez dutelarik.

**Eva Peláez.
Hezitzailea.**

ARRANTZABI
J A T E T X E A
AMASA ☎ (943) 69 12 55

Labesatu
nAindegia
ETXEOENTZAT APARTEKO OGIA!!
Kale Nagusia, 19 - ☎ 69 17 11 - BILLABONA

Ezetz asmatu nor den pertsonaia ezkutua!




Jakina, errazegia litzateke bere itxura batere aldatu gabe pertsonaia ospetsu hau nor den ezagutzea. Horregatik aldatu dugu zertxobait bere aurpegiera. Dena den, zailegia izango ez zaizuelakoan, hara hor gure pertsonaia ezkutua.

Lehiaketan parte hartu nahi izanez gero, bidal ezazue zuen erantzuna Andoingo Doktor Huizi kaleko 15. zenbakira. Irabazleen artean zozketa egingo da eta irabazleak Elhuyarko hiztegi enziklopediko bat jaso ahal izango du **Andoingo MINIKOST** liburudendak oparituta.

38

SARIA SARIA SARIA SARIA SARIA SARIA SARIA SARIA
minikost minikost minikost minikost



minikost

LIBURUDENDA - PAPERDENDA

ELHUYAR HIZTEGI ENZIKLOPEDIKOA ZURE ESKU

1995. agenda, liburu "kapritxoso", beti nahi izan duzun estilografika, gustoko dituzun egurrezko jostailuak eta hainbat eta hainbat gauza gehiago aurkituko dituzu...

KALE NAGUSIA, 20 ☎ 59 16 57 ANDOAIN

ANTZERKIA

ANDOAIN

Martxoak 11: Hugo eta Ines biko-tearen **"Le aventure di Ginocchio"** antzezlan. La Salle antzokian.

BILLABONA

Martxoak 24: **"Desnudos"** antzezlan. Eolo antzerki taldeak eskainita Gurea antzerki aretoan gaueko 10.30etan.

BESTE

ZIZURKIL

Martxoak 8, Emakumearen Eguna Arratsaldean **"Como agua para chocolate"** filmea Kultur Etxean. Ondoren ohizko *cocktel*-a izango da.

"Feminismoa+matxismoa?" mahaingurua izango da arratsaldeko 7.30etan Kultur Etxean. Gonbidatuen artean Emakume Asanbladako, Egizanekeo, eta Emakundeko partaideak izango dira.

Gaueko hamarretan **afaria**.

BILLABONA

Herri olimpiadak

Martxoak 5: Txirrindularitza eta pentatloia herriari bira emanaz.

Martxoak 11: Bazkaria eta parodia txarangak animatuta.

IKUSENTZUNEZKOAK

BILLABONA

Martxoak 21: **"Barnekaldiak"** izeneko saioa aurkeztuko dute Kepa Gonzálezek eta Gema Arrugaetak Gurea antzerki aretoan gaueko 20.00etan.

HITZALDIAK

ASTEASU

Martxoak 21: Joseba Errekondok **"Baratza, fruitu arbolak, lorategia"** hitzaldia eskainiko du Kultur Etxean.

IHAUTERIAK

ANDOAIN

Otsailak 24: Udal Musika Eskolako ikasleen **ihauteri kontzertua** La Salle-Berrozpe ikastetxean arratsaldeko 19.00etan. 23.00etan **mozorrotuen dantzaldia** Goikoplazan Iratxo taldearekin.

Otsailak 25: 11.00etatik aurrera **mozorrotuek nahiz konpartsek Incansables eta Txalaparta txarangekin** kalez kale ibiliko dira. 17.00etan konpartsa eta mozorrotu guztiek **ihauteri desfileari** hasiera emango diote hiru txarangekin batera. Desfilea Aiztondo kaletik, Karrikatik, aterako da eta Goikoplaza bitarteko bidea egingo du. Ondoren eta 21.00ak arte **dantzaldia** Agirren taldearekin.

Otsailak 26: Eguerdiko 12.00etan Incansables **txaranga**. 18.30etan **dantzaldia** Goikoplazan Inguma taldearekin. Eta **haur mozorro lehiaketa**. 22.00etan **Sardinaren ehorzketa** egiteko segizioa Bekoplazatik irtengo da txarangak lagunduta. Segizioko partaide guztiak beltzez jantzita eta kandelak eskuan dutela joango dira. 22.45etan sardinaren ehorzketa Goikoplazan. Ondoren **dantzaldia** Inguma taldearekin.

Otsailaren 23-28: Ihauteritako maskaren erakusketa Urigain Kultur Etxean.

ZINEMA

BILLABONA GUREA ZINEMA

"Maite"

"Timecop policia en el tiempo"

"Mary Shelly's Frankenstein"

"Acoso"

"Rio salvaje"

EKITALDIAK

ASTEASU

Joseba Elizegiren aldeko batzordeak honako ekitaldiak antolatuta ditu:

Martxoak 4:

Futbol saioa Athletic Bilbao eta Real Sociedadeko beteranoek aurrez aurre jarrita Andoaingo Etxeberrietako futbol zelaian. Joaquin Urio Velázquez izango da epailea. Antolatzailea: Euskalduna futbol taldea.

PASAI DONIBANE

Martxoak 11:

17.00etan: Beteranoen estropada: Orio-Donibaneko arraunlariak.

Ondoren seniorren saioa: Orio-Donibaneko arraunlariak-Nuarbe.

17.30etan: Soka-tira: Orio-Donibaneko arraunlariak-Nuarbe.

18.60etan: Bertso saioa: Maialen Lujanbio, Estitxu Arozena, Jesus Mari Irazu eta Aitor Mendiluze.

19.00etan: Harrijasotzaileak: Izeta I, Izeta II, Egi, Ostolaza, Sarasola, Mintxeta II.

23.00etan: Egan Berria taldeak alaitutako dantzaldia.

Txoznak jarriko dira, edaria eta sardinak salgai daudela.

"Patxaranga la nuestra" deituriko txaranga ibiliko da kalez kale.

ORIO

Martxoak 19:

10.00etan: Trialsin proba.

11.00etan: Alterofilia proba.

12.00etan: Bertso saioa: Imanol Lazkano eta Joxe Agirre.

16.00etan: Harrijasotzaileak.

18.00etan: Estropadak, soka-tira eta lokotxak biltzea.

19.30etan: Egan berria taldearekin dantzaldia.



XIXORI

BELARDENDA

DIETETIKA ZENTRUA
KONSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 ANDOAIN



ZUBI

AUTO ESKOLA

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL

Ageda Donea

Orain dela 75 urte nik ez nuen ezagutu santa honen ospakizunik Andoainen. 1932. urtean lehenengo aldiz atera ginen sail bat Batzokitik kaleetan barrena. Arrakastatsua izan zen eta herritarrek oso ondo hartua. Baserritarren artean bai ibiltzen ziren lau edo bost lagun bildu eta etxez etxe abestu eta dirua biltzen.

Egun horretan, 1920ko otsailaren 5ean, beste gauza bitxi bat gertatu zen gure artean: Parrokian bost apaiz izaten ziren eta horien artean zegoen Don Ignazio Larrarte. Sasoi handiko gizona eta kementsua zen, baina zaharrekin eta gaisoekin oso goxoa zen. Horregatik, azken orduan, oleazioa ematean gehienek honi deitzen zioten.

Horrela ba, Baltzungo amona oso gaizki zegoela eta, azken laguntzak emateko Don Ignaziori deitu zioten. Elizara joan, estola eta kapa jantzi, eta Jauna hartu eta sakristaua here farol bota eta txintzarria eskuetan zuela, hor doaz presaka. Baserri hau ordubete ingurura dago. Garai hartan ohitura zen baserri ingurutik Elizakoan igarotzean hango etxeokak hantxe ateratzea kandela piztuta bidean laguntzeko. Baina gure apaiz honi ez zitzaion hori gustatzen, eta Etxarriko atarian bertako andrea kandela piztuta zain zegoela ikusi zuenean, bakarrik abiatu zen abiada izugarrian sakristaua eta gainontzekoak atzean utzirik.

Baltzunen zain zeuden eta sartu ziren denak gelara. Han mahai bat jarri ohi zuten aldare gisa: zapizuria, gurutzea, kandeleroa, ur bedeinkatua baso batean erramu ostoaekin. Apaiza sartzean (Jauna mahai gainean utzi eta ur bedeinkatua zabaltzen zuen, eta ondoren jendea aterarazi eta atea ixten zuen konfesatzeko). Bitartean iritsi ziren atzean gelditu zirenak.

Atea ireki zuenean aurreratu zitzaion Etxarriko andrea eta esan zion: "Jauna hau berorri galduko zitzaion, bidean bilatu dut". Eta kutxa txiki hartan zegoen Jauna. Gure Don Ignaziok zalapartan zihoala galdu zuen, nonbait. Gaur ez da horrelakorik ikusten, baina garai hartan Elizakoak kalean zihoazenean denak belakuniko jartzen ziren. Bazen gaur adineko errespetua!

Joxe Eizmendi

BERTSOTAN




*Otsailaren hogeita hirua
karnabalen hasiera,
txit ongi pasatzeko badegu
izugarrizko aukera,
astoa bartu eta atzetik
gurdiaekin batera,
fraillez jantzita bueltak ematen
bantxe arituko gara.*

*Aipatu bebar ekitaldiak
bitz gutxitan eta bela,
arratsaldero nabi duenarentzat
zezenak omen daudela,
karrozak, baurren jolasak eta
gauzez musika bestela,
ezin da esan dibertitzeko
aukerarik ez dagoela.*

Ion-Ander Esnaola

Zizurkil



SAGARDO TEGIAK



SARASOLA SAGARDOGILEA

Zumalikardi baserria
ANOETAN
☎ 65 26 22



Sagardotegia
ASTEASUN
☎ 69 02 83


1970. urtean ireki zuten.
Sagardo garaiari zabaltzen dute. Sagardoa
beraiek egiten dute.
200 pertsonentzako lekua (aparkalekua)
Berezitasuna: Etxean egindako menbriloa

BENTA Sagardotegia



SORABILLA - ADUNAKO
ERREPIDEA
☎ 69 30 94


150. pertsonentzako lekua (aparkalekua)
urtarilaren 18an ireki dute.
Sagardo garaiari **sagardotegi** gisa
irikitzen dute eta urtean zehar **Jatetxe**
moduan
Berezitasunak: Gazta-tarta eta etxean
egindako menbriloa



ABURUZA SAGARDOTEGIA


☎ 69 24 52 - 69 21 53 ADUNA

Orain dela 13 urte ireki zuten,
sagardoa beraiek egiten dute.
Urtariletik Irailera bitartean irekita
daukate.
200 pertsonentzako lekua
(aparkalekua).
Berezitasuna: Makailau tortila.





Txistoki Pasea Lekua
 Poligono 43
 Telefonoa 59 35 25
 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)




ANDOAINGO IKASTOLA

KALITATEZKO EUSKAL ESKOLA
 ETORKIZUNERAKO ITURRI

JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA

V I L L A B O N A
 IRAKASKUNTZA EUSKALDUNA KRISTAU IKUSPEGITIK ABIATURIK




Irakaskuntza euskaldunak suposatzen du, euskera gaztelania eta ingelesa gaintitu behar dituela hemendik irteten den ikasleak

Ingelesa lehen mailatik 8.era bitartean ikasten dute gure ikasleek, hirugarren hizkuntza ere mendera dezaten

AURREMATRIKULA:

Martxoan lehen hamabostaldian egingo da.
 Ordutegia: goizez 9. - 12,30.
 arratzalde 4. - 6.
 Lekua: Zentroko idazkaritzan.
 Kale berria, 49 lehen pisua



ORDENADOREAREN TRIKIMAILUAK IKASTEN